Por lo tanto, creo que hay bastantes cuestiones a mejorar, y creo, y usted ha dejado muy claro qué es a fin de cuentas la colaboración público-privada para ustedes. Debilitar el empleo público y la función pública, y subcontratar cada vez más. Ya sé que eso es costumbre, y que la contratación externa será necesaria en algunos casos. Pero no entiendo que se haga un control de la banda ancha con una empresa externa, no entiendo por qué las inspecciones las controla una empresa externa, creo que eso debe hacerlo el poder público, y eso es lo que la Diputación debería promover, y la contratación externa debería ser residual, pero hoy en día no es residual, al contrario. Muchas gracias.

La Sra. **PRESIDENTA / LEHENDAKARI** andreak: Gracias a usted, señora Urkaregi Etxepare. Turno de réplica, igualmente, para el representante del grupo Elkarrekin Bizkaia. Señor Benito Ziluaga, tiene la palabra.

El Sr. **BENITO ZILUAGA** jaunak: Gracias.

Etxanobe andrea, egiten zabizien gauzetako batzuk aitatu deuskuzu. Tira, egin daikezuen beste bat esango deusut nik: ez segidu aholkularitza horreek kontratetan. Izan be, esate baterako, orain gitxi jakin dogu BEAZek 97 S&F-ri adjudikau deusala Bizkaia Orekan ekimenerako laguntza teknikoko kontratua. Hau da, nahikoa konpromiso ahula dago, esan daigun, ia 10 urtez iruzurrezko praktikak egin dabezan enpresak kontrateari ixteko. Era berean, konpromiso serioa eskatuko deusut Batzar Nagusietan eskatzen dogun gai honen gaineko informazio guztia helarazoteko, izan be, zera, daborduko ikusten gabiltz atzerapenak dagozala nire taldeak eta beste talde batzuk gai honi jagokola egindako informazio-eskari batzuei erantzutean.

Esan dozu MLBNk ez dauala dudan ipini Bizkaiko Foru Aldundiaren jardurea, eta informazio guztia bialdu deusezuela. Besterik ez genduan behar, informazio guztia ez bialtzea, baina esaten ez dozuna da MLBNk ez dauala arrazoi horregaitik ez Bizkaiko Foru Aldundiaren ez beste ezelango administrazioen jardura onetsi. Izan be, irakurri dot daborduko MLBNk berak esandakoa: leitekena da eragile batzuen eta administrazio batzuen egitateak lekuz kanpo egotea gure ordenamentu juridikoan. Zer jazoten da, ordea? MLBNk ikertutakoa enpresek lehiaren kontra egindako iruzurrezko jardunak dirala, eta ez hainbeste, ez da hasi administrazioen barruan horregaz bat egin dan ikertzen, eta hori zeuon ardura da, gobernuarena. Zeuek ireki behar dozue orain, edo ireki daikezue, zabaldu ahal dozue, gura izan ezkerro, barne-ikerketa bat, jazotakoa argitu gurako bazendue.

Zergaitik uste dogu beharrezkoa dala? Ba, e-mail batzuk dagozalako, zeinetan argi ikusten dan aholkularitzek informazio pribilegiatua eukiela. 2012an, generozeharkakotzearen laguntza teknikorako; 97 S&F-k mezu elektronikoko bat idatzi eutsan Deloitte, esanez “uste dot gaur gonbidapen-eskutz bat helduko jatzula Bizkaiko Foru Aldundiaren lehiaketa baterako, Gizarte Ekintzakoa”. Deloitte 97 S&F-ri, Larrialdia Kudeatzeko Zentro Integratua martxan ipintea dala-ta: “Gaur posta arrunt bidez helduko jatzu Bizkaiko Aldundiaren gonbidapena, Larrialdien Zentro Integralaren lehiaketarako”. 2016ko bat, hau ederra da: Deloitte posta elektronikoko mezu bat bialdu eutsen Bizkaiko Foru Aldundiaren ordezkari biri, lehiaketarako gonbidapena zein enpresa biri bialdu ahal eutseen aditzera emoteko. Aizu, benetan gauza zara tribuna honetara atzera igoteko eta esateko Bizkaiko Foru Aldundiaren aldetik ez dala egon ezelango bat egiterik, ez jakola informazio pribilegiaturik emon enpresa bakar bati be ez? Pentsarazo gura deuskuzu e-mail horreek ez dirala bat egitea, ez dirala informazio pribilegiatua? Niri sinisteko gaitza begitantzen jat, gitxienez.

Ikusi dot, zera, gure interpelazinoari garrantzia kentzen ahalegindu zarala, baina jazoera horri garrantzia kenduz, eta jazoera larria da, beste gauza batzuk pentsetako bidea emoten dau eta. Izan be, Euskadin eragindako ia lizitazino danak Euzko Alderdi Jeltzalearen gobernuei jagokez, eta ez da hain harrigarria, ikusita EAJko politikari asko aholkularitzetara joaten dirala. Ez bakarrik Asier Atutxa, PwCko zuzendari modura. Baita Sabin Azua be, txostenean aitatzen dana eta zigor bat egokitu jakona. Eta José Alberto Pradera, Ahalduen Nagusi ohia, Idomek fitxauta, eta Víctor Bravo senatari ohia, hori be Idomek fitxauta. Tira, uste dot orain aukerea eta ardurea daukazuela enpresa horreei eta merkatu osoari mezu argia bialtzeko: holango jardunbideak ezin da funtzionau.

Amaitzeko, jarduera-proposamen batzuk egingo dodaz, uste dot zuen zerrendari gehitzeko modukoak dirala. Barruko ikerketa hori hasteaz gainera, argitzeko zelan eta zeren bitartez heltzen zan informazino pribilegiatu hori, argi eta garbi existiduten zana, iruzurrezkoak dirala probau dan lizitazinoetan entregautako lanak erabilteari ixteko aukerea daukazue. Modu berean, Herri Kontuen Euskal Epaitegiari eskatu ahal deusazue ikertutako enpresakaz egindako kontratuak fiskaliza daizala. Enpresak auzitara be eroan daikezue, kartelaren praktika larriek kaltetutakoak zarien aldetik, lehen esan dodan legez honek guztiak gainkostua eragin deutso-eta diru-kutxa publikoari.

Azken baten, gauza asko egin daikezue jazoera larri horreek dirala-ta, eta mezu argia bialdu. Etikoa ez dana, argi eta garbi, geldu egotea da, 10 urte baino gehiago iraun daben iruzurrezko jardun batzuen aurrean.

La Sra. **PRESIDENTA / LEHENDAKARI** andreak: Gracias, señor Benito Ziluaga. En el turno de réplica de la representante de la Diputación, tiene usted la palabra, señora Etxanobe Landajueta.

La Sra. **ETXANOBE LANDAJUELA** andreak: Gracias, señora presidenta.

Lehenengo berbaldiari jagokonez, Benito jauna, kezka agertu dozu larri kontratatetan dalako, Urkaregi andreak be berba egin dau gai horretaz.

Ea ba, uste dot, lehenengo eta behin, ez dala arrazoizkoa Aldundi honi eskatzea lizitazino publikoak egiteari ixteko, eta interpelazinoa egin daben taldeak gobernuan dagozan lekuetan, kontratuak lizitetan dira, Bizkaiko Foru Aldundiak egiten dituan kontratuen antzeko helburuakaz. Horren eredu, hara, alderdi politiko guztiek gobernautako udalen kontratazino publikoko profilei begiratu besterik ez dogu egin behar, edo ministerioetara be jo daikegu; han, gobernuan dago gaur egun Elkarrekin Bizkaia taldea. Horrenbestez, tira, hori da, zelanbait, egin gura neban planteamentua.

Neure lehen berbaldian esan dodan legez, kontratazino publikoa, gure ustez, Bizkaiko Foru Aldundiaren ustez, tresna eraginkorra da administrazino publiko guztientzat, eta guretzat be bai, esan deusuedan moduan, finkatuta daukaguzan helburuak lortzeko, garatu beharreko politika publikoei eta jarduera ekonomikoa bera dinamizatzeari jagokenez.

Gizartea eraldatzen dauan lanabesa da, kontratatuetan egikaritze-klausulak gehituz, kasu bakotxean behar diran ondasun eta zerbitzuak eskuratzeaz gainera, merkatuari adierazoten deusagu zelan gura dogun prestazino hori gauzatzea, eta prestazinoa gauzatzeke modu horretan dago eragin eraldatzailea, enpleguan, ingurumenean, gizartearen arlo guztietan.

Horregaitik, Aldundi honek borondate irmoa dauka foru-entitateakaz batera lan egiteko, kontratuetan gizarte-klausulak, ingurumen-klausulak eta bestelako politika publiko batzukaz zerikusia daukienak txertatzeko. Bide horretan aurrera egin gura dogu, lurralde honetan persona guztiek enplegu duina eukiteko helburu nagusirantz. Hori da gure lehentasunezko helburuetako bat.

Esan dozu, Urkaregi andrea, “ahal dabe” esaldia erabili dodala. Halan da, bai, “ahal dabe” dinot, ze foru-entidadeak botere adjudikatzailak dira neurrian, ez jagoke sailei klausula horreek gehitzea. Baina Kontratazino Gidaren eta Araudi Betearazlearen helburua da Aldundiak bere barruan hartzen dituan entidade guztietan aplikau ahal izatea klausula horreek. Horregaitik dinotsut lanean eta eboluzionetan segidu behar dogula, baina horrek ez dauala esan gura gure kontratazino-politikek nabarmen geratu diran akatsak daukiezanik, ze, halan izan ezker, gabezia horreek administrazino publiko guztietan egon dira; izan be, egitatea jazo da, zeure eretxiz agerian ipini dituana MLBNk bere ebazpenean egiaztautakoa errazten eban kontratu-kategoria baten ustezko akatsak, eta egiaztautako hori merkatuan jazo diran eta enpresa jakin batzuk egin dabezan lehiaren aurkako jokabideak dira.

Ez deutsat ezelan be garrantzirik kendu gura gaiari, Benito jauna. Azpimarrau gura dot MLBNk nori egin deutsan gaitzespena eta nori ez, eta Bizkaiko Foru Aldundiaren jardunari ez deutsu egin.

Horrenbestez, gaitzetsi daigun MLBNk gaitzesten dauan gauza bera, hau da, aholkularitza batzuen eta euren zuzendaritzetako kideen jarduna, eta ez administrazino honen jarduna.

Zuk bat egitea aitatu dozu, eta paragrafo bat irakurten hasi zara. Kasualidadez, nik idatzita ekarri dodan berbera da, baina osorik irakurriko deutsut, hasi eta amaitu, hain zuzen be, zuk hainbeste aitatu dozun bat egiteari jagokola.

Enpresek bat egite hori erabili dabe argudio, eta MLBNk ez dau argudio hori onartu euren ardurez libratzeko. Paragrafoa irakurriko dot, hasieratik amaieraraino: “Enpresek, ezkutetako borondatea baztertzeko, administrazinoaren balizko bat egitea erabili eben atxaki, baina ez dabe esan, kasu batzuetan leitekena dan arren administrazino batzuk jardunbide horreen barri eukitea –eta hori ez da egiaztatu, eta ez litzateke administrazino guztien kasua izango–, merkatuko beste eragileak izango liratekela, edozelan be, jardunbide horren barririk eukiko ez leukienak”.

Amaitzeko, ikerketa-batzorde bat eratzeari jagokonez, eta MLBNren ebazpenak dinoan legez, ikerketean dozenaka informazino-eskari egin jakez administrazino publiko lizitatzailak; horreetako batzuk zuok be egin dozuez, eta informazinoa emongo deutsuegu. Desitxuratu ziran prozedurei jagokonez, orokorrean, eragindako administrazino publikoen jarduna ez dau behin be, behin be, ezbaian ipini MLBNk. Eta batzordearen espedientetik ez da ondorioztatzen lizitazino horreek izapidetzean anormaltasunik egon danik.

Bizkaiko Foru Aldundiak segiduko dau MLBNk hasitako prozesuari adi-adi begiratzen, baita beraren ibilbide judizialari be, halakorik egon ezker, bidezkoak diran neurriak aplikau ahal izateko, ebazpena behin betikoa danan.

Ondorioz, MLBNk bere ebazpenean emondako erispenari jagokonez behintzat, Aldundi honek ez dauka kontratazino-politikea zertan aldatu, ebazpen horrek ez dau eta ezelan be erakunde honen kontratazino-politikea gaitzesten.

Bigarrenik, eta azkenik, azpimarrau egin gura dodaz Aldundi hau gaur egun hartzen dabilen neurriak, etorkizunean barriro ez jazoteko lehia mugatzen dauan holango jardunik.

Como he dicho antes, en estos momentos estamos analizando e interiorizando la comunicación recién publicada por la Comisión Europea, pero muchas de las medidas recogidas en la misma ya están siendo aplicadas por la Diputación Foral de Bizkaia.

Interpelazioa egin dauan taldeetako batek uste dauanaren kontra, Kontratuen Legea zorrotasunez bete eta apliketea da modurik eraginkorrena lehia mugatzen dabena jardunak eragozteko, y esto no lo digo yo, lo dice la Autoridad Vasca de la Competencia, lo dice la institución competente en este tema, el camino más idóneo es cumplir de la mejor manera posible la vigente Ley de Contratos. Ese es el camino para promover la competencia.

La Sra. **PRESIDENTA / LEHENDAKARI** andreak: Vaya terminando, por favor.

La Sra. **ETXANOBE LANDAJUELA** andreak: Y eso es lo que nosotros y nosotras, como gobierno, y también ustedes, querrán: la mayor de las transparencias, la más estricta aplicación, para conseguir las mejores condiciones para la administración. Garantizando, al mismo tiempo, las condiciones de trabajo más dignas y adecuadas para las personas que trabajan en esas empresas adjudicatarias. Ese es, a su vez, uno de nuestros objetivos; por lo tanto, estamos de acuerdo en eso.

Zera adierazo gura dot, Benito jauna: Bizkaiko Foru Aldundia ez da geldi egongo. MLBNren ebazpenean salatutako kolusinozko jardunak egon dirala egiaztatzeak kezka handia eragin deutso Bizkaiko Foru Aldundiari, eta, ildo horretan, argi itxi gura dot gure esku dagoan guztia egingo dogula hemendik aurrera halango jardunak ez egoteko.

La Sra. **PRESIDENTA / LEHENDAKARI** andreak: Muchas gracias.

La Sra. **ETXANOBE LANDAJUELA** andreak: Barriro dinot konpromisoa daukagula legea beteten segiduteko, eta gure lizitazioetan gardentasuna, konkurrentzia eta lehiakortasuna sustatzen segiduteko. Muchas gracias, y perdón.

La Sra. **PRESIDENTA / LEHENDAKARI** andreak: Gracias, señora Etxanobe Landajuela. Pasamos al 2º punto del orden del día.

El Sr. **SECRETARIO SEGUNDO / BIGARREN IDAZKARI** jaunak:

2.- Examen, debate y votación, en su caso, del/de los escrito/s sobre:

Iniciativa Originaria: Interpelación
([R.E.11/E/2021/0002013](#))

Autor: Fernández Angulo, Amaya (GM/TB-PPB)

Asunto: Bizkaia sea fiscalmente atractiva.

Documento Principal:
([R.E.11/E/2021/0002013](#))

2.- Hurrengo idatziari(ei) buruzkoak aztertu, eztabaidatu eta, halan bajagoko, bozkatzea:

Jatorrizko ekimena: Itauna
([11/E/2021/0002013SE](#))

Egilea: Fernández Angulo, Amaya (GM/TB-PPB)

Gaia: Bizkaia zerga aldetik erakargarria izatea

Dokumentu Nagusia: ([11/E/2021/0002013SE](#))
Espedientea: ([11/B/18/0002527](#))

Expediente: [\(11/B/18/0002527\)](#)

La Sra. **PRESIDENTA / LEHENDAKARI** andreak: es el turno de la apoderada que ha presentado la propuesta. Así pues, señora Fernández Angulo, tiene usted la palabra.

La Sra. **FERNÁNDEZ ANGULO** andreak: Mahaiburu andrea, mahaiko kideak, batzarkide jaun-andreak, egun on danoi. Etorkizuna zelakoa izango dan zehazten daben momentu garrantzitsu horreetako baten gagoz, lidergo-gaitasuna neurtzen dan momentu horreetako baten; erronka bat da, erabagiak hartzeko eta beharrezko eta preminazko neurriak hartzeko, Bizkaia lurralde erakargarria izan daiten inbersinorako eta jarduera ekonomikorako, eta galdu dauan lidergo-posizinoa berreskuratu daian.

Eta ze neurri hartu behar dira horretarako? Neure eretxiz, neurri horreen ardatzak industria-politikea, erreforma fiskala, eta gastu ez-eraginkorra eta zama administratiboak murriztea izan behar dira, baita azpiegituren alorreko politika lehiakorra be.

Industria-politikeari jagokonez, kamara honetan sarritan salatu dogu ez dagoala halangorik. Seguru nago danok emoten deusagula garrantzi handia industria-sektoreari ekonomiaren sendotasunari jagokonez, eta bat gatozela industriak, egitura ekonomikoa ez eze, egitura soziala be sortzen dauala. Eta pentsau gura dot, danok bat gatozela, modu berean, munduan erreferente bihurtu ginduzan espiritu ha berreskuratu behar dogula, eta ekonomia produktibo egonkor baten oinarriak sendotu behar doguzala, industrian oinarrituta, eta zuek hainbeste puztu dozuen zerbitzuen sektore horrenganako menpekotasun txikiagoagaz.

Horrek esan gura dau Bizkaiak proiektu bat euki behar dauala gure industriarentzat, ostera be izan daiten Bizkaiko ekonomiaren ardatz egituratzailea, eta ez gara eretxi hori daukagun bakarrik. Izan be, *El Correok* orain dala gitxi antolatutako foroan, birusaren osteko gako ekonomikoak eta momentu erabagigarri honetan Euskadik daukazan erronkak zeintzuk diran eztabaidatzeko, Sidenorreko presidenteak adierazo eban industriari uko egiten badeutsagu etorkizunik ez dagoala.

Bien bitartean, arazo larria daukagu: estrategia argirik eza, industria-politika seriorik eza eta planifikazino zehatzik eza. Bizkaiak aurre egin behar deutse geure ekonomia-ereduan erreformak egiteko eragozpenei, eta batez be erreforma fiskala egin behar dau, erreforma horrek industriari, gure ekonomia-sareari, inbersinoari eta personei ekarriko leuskien onura ardatz hartuta.

Zer falta jaku, enpresa-estrategia zorrotz eta planifikatu horretaz gainera? Bizkaian erreforma fiskal bat egitea falta jaku. Ilargian egon beharko gintzatekez, ez konturatzeko Bizkaiak daukan funtsezko arazoetako bat lehiakortasun fiskalik eza dala. Geure eretxiz, beharrezkoa da eredu fiskalaren gaineko itun zabal bat, lurralde benetan erakargarria izan gaitezan barrero, ekosistema sendo bat sortuta, inbersinorako konfort fiskaleko eremu bat, eta ekintzailletza garatzea ahalbidetuko dauan inguru bat.

Tresna ezin hobea daukagu horretarako, Ekonomia Ituna. Berezitasun hori aprobetxau behar dogu, eta personen lehiakortasunaren mesederako baliatu. Eta erreforma fiskalaren kontu hau be ez dau talde honek bakarrik planteetan. 2017ko martian, Deusto Business Alumnik Bilbon antolatutako berbaldi baten, Bizkaiko Ahaldu Nagusia Euskadin erreforma fiskal bat egitearen alde agertu zan, lehiakorragoak izateko eta jarduera ekonomikoa

sortzeko. Eskumena daukagun zerga-figuretan alderdi batzuk doitzearen eta aldatzearen alde agertu zan, herrialdea erakargarriagoa, lehiakorragoa, jasangarriagoa eta bardinzaleagoa izateko; hori, beraren ustez, etorkizunerako inbersinoa izango litzatekelako. Bat nator, bat gatoz, diagnostiko horregaz, baina beste behin be, Ahaldun Nagusi jauna, bete bakoen linboan geratu da tratamentua. Izan be, gure sektore produktibok zerga gitxiago ordaintzeko premia daukie, sektore produktibo horreetan dagozan personek babes behar dabe. Zerga-politikea palanka ekonomiko modura erabili behar dogu, ekonomia sustatzeko, Bizkaia erakargarri bihurtzeko, inbersinoak erakarteko.

Bitartean, Foru Gobernuak erreforma fiskala atzeratzea beste asmorik ez daukala emoten dau. Tribuna honetan egiten dozun fiskalitatearen aitamen ia bakarra Mazzucato andreari eskatutako lan aitzindariaren gainekoa da; lan horrek aukerea emongo dau, agindu dozuenez, GJHakaz bat datorren zerga-politika bat finkatzeko.

El Correoren foro interesgarria aitatuko dot barriro. Horretan, Cebekeko presidenteak esan eban Euskadik hobera egin behar dauala zergen alorrean, eta uste dot gaurko eguna, tribuna honetan, momentu aproposa dala enpresei, eta herritarroi, galdera baten erantzuna, edo hobeto esanda, aurtengo urte politikoko galdera nagusiaren erantzuna emoteko. Galdera hori, Rementeria jauna, hau da: erreforma fiskal bat aurkeztuko deusazu kamara honi urtea amaitu baino lehenago, abenduaren 31 baino lehenago?

Gogorarazo gura dot zuk, 2015. urteko foru-hauteskundearen kanpainan, atzerriko inbersinoa Bizkaira ekarteko programa ekonomiko barri bat iragarri zendula. Baina, Ahaldun Nagusia zaran bigarren agintaldiaren erdian gagozan honetan, Bizkaia ez da oraindik inbersinoa erakarteko erakargarria; izan be, lurraldeen arteko lehian Bizkaiak daukazan arazoak orain dala urte batzuetako bardinak dira, eta egiaztauta dago zure politikak ez dirala eraginkorrak izan egoera hori orekatu eta gure lurraldea inbersinoaren eta ekonomia suspertzearen bidera eroateko barriro. Inbersinoa funtsezko gakoa da-ta ekonomiaren, enpresen, ekintzaileen lehiakortasunerako. Beharrezkoa dogu gure lurraldea gai izatea personak, ideiak, kapitalak eta proiektuak seduzitzeko, erakarteko. Beharrezkoa da estrategia bat martxan ipintea, suspertzeko, eta batez be, seduzitzeko gaitasuna daukan eremu ekonomiko bat sortzeko. Labur esanda, "lurralde-eragina" behar dogu, eta lehenbailehen berreskuratu behar dogu hori.

A!, eta beste gauza bat, oso garrantzitsua be bai: egonkortasuna. Enpresek egonkortasuna behar dabe, segurtasunez kokatu behar dabe-ta bertan, egitera datozena egiteko, hau da, negozioa egiteko. Horren harira, Ahaldun Nagusi jauna, jakin gura neuke ea, zeure ustez, inbersinorako eta enpresak erakarteko egonkortasunaren, segurtasunaren eta lasaitasunaren ildoan gabilzan, jakin gura neuke ea zure ustez ildo horretan dagozan orain gitxi Euzkadi Buru Batzarreko lehendakariak egindako adierazpenak, hau da, espainiarrek onartu behar dabela Katalunia eta Euskadi ezin dirala Espainiako Estatuaren barruan gustura gelditu menperatuta egotearen sentsazioagaz, ezin dirala gogoz kontra bertan gelditu.

Nik neuk dinotsut, adierazpenok ez dabela laguntzen erakargarriak izateko, talentua bertan atxikiteko eta inbersinoa ekarteko helburu garrantzitsu hori beteten, hori da neure eretxia. Zurea be jakin gura dot, eta itaundu egiten deusut, neuk be neure buruari itaun horixe egiten deusat eta. Esan barri dodan horrek esan gura dau gobernu-ardura garrantzitsuak daukazan alderdi bat pentsetan dabilela joan ahal izateko bideari ekiteaz?

Inbersino-egileek, gutako edonork, zuk edo nik, bilatuko geunkean gauza bera bilatzen dabe euren aurrezki eta kapitalentzat; segurtasuna, lasaitasuna eta errentagarritasuna. Halan be, atzerriko inbersino-egileek badaukie tokikoek edo nazionalek ez daukien ezaugarri bat: aukeratu ahal dabe. Atzerriko inbersino-egile batek igarten badau Bizkaiak ez deusala emoten bere ustez arrazoizkoa dan errentagarritasunik edo segurtasunik, leku hobea bilatuko dau, beste barik.

Inbersinoa egoteko beste kontu garrantzitsu bat administrazio publikoen eraginkortasuna bermatzea da, burokrazia lar ez egotea, alferreko gastuak murriztea, helburua betetea oztopatzen edo moteltzen daberen arauak eta prozedurak berrikusi ondoren. Modu horretan, enpresen arloko araudia zertarako eta enpresak sortzea errazteko, sustatzeko izango da.

Eta horri guztiari azpiegituren politikea gehitu behar deusagu, bai garraiobide-azpiegiturena bai digitalena, funtsezko faktorea ditra-ta helmena errazteko, bai herrialdearen barruan bai hirugarren merkatuetara. Ildo horretan, uste dogu bidesarien politikeak garrantzi sozial eta ekonomiko handia daukala, eta, are gehiago, bidesarien politika on batek mesede egiten deusala ekonomiaren lehiakortasunari. Horretaz zer eretxi dozun jakitea be gustauko litxakit.

Azken baten, gaur egungo testuinguru ekonomikoa hobetu beharra dago, eta gizarte moderno eta barritzaile bateranzko aurrerapausuak egin behar dira, benetako industria-politikeakaz, zama administratiboak arinduz, azpiegitura- eta garraio-politika lehiakor bategaz. Beherapen fiskaletan oinarritutako zerga-sistema bat diseinatu behar da; jarduera ekonomikoa suspertu eta kapitala eta talentua deslokalizatzea eragotziko daberen beherapenak.

Horregaitik guztiagaitik, Ahaldun Nagusi jauna, galdetu gura deusut zer neurri hartzeko asmoa daukazun, Bizkaia erakargarriagoa izan daiten inbersinorako eta jarduera ekonomikorako. Eskerrik asko.

La Sra. **PRESIDENTA / LEHENDAKARI** andreak: Muchas gracias a usted, señora Fernández Angulo. En el turno de réplica, tiene la palabra el señor diputado general.

El Sr. **REMENTERIA MAIZ** jaunak:

Muchas gracias, señora presidenta, y a los miembros de la mesa y a apoderadas y apoderados, buenos días a todos y todas. Bueno, señora Fernández, aquí estamos otra vez, dando vueltas a los mismos temas de siempre. Digo “otra vez” porque el título de la pregunta me trae a la memoria otra que se formuló, hace no mucho tiempo, en estas mismas Juntas Generales.

2019ko urriaren 30era bueltauko naz; egun haretan, interpelazinoa egin zeunstan zuk zeuk, holan inoan itaun bategaz: “Politika fiskaleko ze neurri hartzeko asmoa dauka Foru Aldundiak, Bizkaia lehiakorragoa izan daiten lortzeko?”. Hara, ze neurritan diran alkarren kopia.

Baina, tira, bestetik, zeure alde esan neike ordutik hona 20 hilabete igaro dirala, 20 hilabete, ezta? Itaun bera, gogoeta bera, eta esango neuskizu argudio berak dirala, bidesariena izan ezik. 20 hilabete ordutik. Bitarte horretan pandemia bat eta krisi ekonomiko handi bat euki doguz, azken 15 hilabeteotan ekonomia bat-batean gelditu dan egoera bat euki dogu, ez dogu holangorik ezagutu azken 100 urteetan, Depresino Handitik, Gerra Zibiletik.

Ba, hara, antzeko erantzuna emon behar deusut, ezin besterik egin. Guk egunero-egunero egiten dogu beharra, ahaleginduz, gure ingurua gero eta egokiagoa izan daiten existiduten dan jarduera manteneduteko, zabaltzeko, baita talentu gehiago eta, haregaz batera, inbersinoa erakarteko be.

Zuk, zeure interpelazinoan, testuan gitxienez, testuaren gorputzean, oinarri modura aitatzen dozu, alde batetik, fiskalitatea, eta dinozu gu beharrean gabilzala University College of London dalakoagaz eta Mazzucato andreagaz; era berean, nik aitatu nebazan

hazkunde ekonomikoko aurreikuspen batzuez berba egin dozu, BPGaren % 6,5eko hazkunderaz. Horreek dira gobernuak helarazo deuskuzan adierazle makroak. Dinozu, be bai, Aldundia errepideetan bidesari-sistema bat ezarten dabilela edo ezarteko beharrean dabilela, salgaien garraioari jagokonez.

Tira, fiskalitatea, hazkundera eta bidesariak. Zuk orain osagai gehiago bota dozuz lapikora, Aldundiaren lana epaitzeko, ados. Begiratu, lurralde baten erakargarritasuna, lurralde baten lehiakortasuna, ez dira sektore edo faktore gitxi batzuen arabekoak, ez, faktore asko eta askoren menpe dagoz. Fiskalitatearen menpe dagoz, eta hori aitatu dozu, bai, baina prestakuntzaren eta kualifikazioaren, finantziazioaren, talentuaren, barritzeko ahalmenaren, inguruaren, personen bizi-kalitatearen eta jagoletzaren menpe be bai. Seme-alabentzako ikastetxeak, barneratzea, bardintasuna eta bestelako balio batzuk, segurtasuna, bai herritarren segurtasuna bai segurtasun juridikoa eta zergen alorrekoa, administrazioenganako konfiantza, lan-gatazkak, politikarienganako konfiantza, azpiegitureak, aisialdirako eta kirolerako guneak, sendiei egiten jaken kultur eskaintza, berbeteak... Hori guztiori eta gehiago, seguru zer edo zer ahaztu jatala. Logikoa dan legez, faktore horreen arabera erabagiten dabe personek, sendiek, enpresek, *start-up*ek, hona etorriko diran edo hemen geratuko diran.

Bidesariak aitatu dozuz, eta itaundu egin deustazu, horretaz interpelau nozu. Begiratu, esango neuskizu alderdi horreen guztien arteko beste bat dirala. Baina, ulertuko dozun moduan, balio txikiagoa daukie jarduera bat hemen kokatzea erabagiteko garaian, balioa txikiagoa da erabagi horri begira.

Ostera, aitatutako beste alderdi batzuk oso esanguratsuak dira. Horreen artetik, administrazio honek bakarka edo alkarbanatuta eskumena daukienez artetik, azpimarratu daiegun sustatzeko eta barrizteko ahalmena, talentua eta beraren kualifikazioa, ingurua, azpiegiturak, eta, hori be bai, fiskalitatea. Horretan lan egiten gabilz. Sustatzeko eta barrizteko ahalmenaren ardatza 4 trantsizino handi garatzea da, eta horretan gabilz, Aldundia aspalditik dabil horretan beharrean. Trantsizino edo eraldaketa horreen helburuak dira, logikoa dan legez, gure ekonomia-sarea hobetzea eta gaitzea, bizi-kalitatea hobetzea, eta, horrenbestez, erakargarriagoak izatea, inbersinoa erakarteko.

Banan-banan. Energia- eta ingurumen-trantsizinoak. Bizi izan dogun egoera honek argi itxi deusku gauza bat, ezin dogula segidu edozelan hazten, baina ez Bizkaian, ez estatuan, ez munduan. Ezin dogu. Hazkundera, horrenbestez, iraunkorak eta jasagarriak izan behar dira. Automobilgintzako eta aeronautikako zentro aurreratuak errendimentu handiz dagoz funtzionetan hemen, lurraldean, eta sendotzen dabilz. EIC be, energiaren aldetik, bai hidrogenorako trantsizinoari bai elektrizidateari jagokenez. Eta zentro horreek benetako eta etenbako erakarguneak dira enpresentzat. Proiektuentzat, enpresentzat... Baina ez daigun ahaztu enpresa horreen hornidura-katea, balio-katea. Gaur egin da publiko, gaur bertan argitaratu da albiste bat, errealidade horren gainekoa.

Badakizu administrazioak ezin dauala jarduera ekonomikorik gauzatu, ezin dau. Enplegu publikoa sortzen dogu, kontratau egiten dogu, baina ez dogu jarduera hori gauzaten. Aitzitik, administrazioak ekonomia-sareagaz alkarlanean jardun daie barrikuntza bultzatzeko, ikerketea bultzatzeko, eta, horregaz batera, trantsizinoak be bai. Eta hori da gure administrazioan etenbakoa dan neurrietako bat, etenbakoa.

Baina ez sektore horreetan bakarrik, sustatzen doguzan beste batzuetan be bai, lankidetzak eta barrikuntza ireki kontzeptu baten, funtsezko elementua. Ildo berean zabalduko da, 2022an, Nazioarteko Ekintzailtzak Zentroa, horrek be enpresak erakarriko ditualako lankidetzak-ekosistema batera, eta, ondorioz, *start-up*ak sortuko diralako; halan, talentua ekarriko da atzera, eta daukaguna mantenduko da, hemen prestatuko mantenduko da, baina barria be erakarriko da. Enpresek, ekonomia-sare osoak, etenbako hobekuntza behar dabe,

etenbakoa, eta gai izan behar gara hori egiteko, sektore guztietan. Sektore guztietaz nabil berbetan eta enpresa mota guztietaz be bai, handiak, ertainak, eta batez be txikiak.

Hori landu behar dau administrazioak, esan dodan legez, faktore eta ingurune horrek guztiak sortu behar ditu, eta horretan gagoz zentrauta, euskal erakundeok behintzat.

Eraldaketa digitala. Digitala be gure sare produktiboaren txoko guztietara ailegau behar da. Baita azpiegituren eta ezagutzaren aldera be, banda zabala Bizkaiko txoko guztietara eroateko inbersinoek lurraldearen lehiakortasuna handitzen dabe, duda barik. Gure enpresa txiki eta ertainen ehun osoarentzako profil digitalak sortzea be lehiakortasuna hobetzea da. Hobekuntza digitalerako laguntza zuzenak enpresentzat eta autonomoentzat, kenkari fiskalak, inbersino horreek ahalbidetzeko beste tresna bat daukagu hor.

Eraldaketa soziosanitarioa, lehen be esan dot, ingurunea, bizi-kalidatea, personak jagotea... oso faktore garrantzitsuak dira. Bizi-kalidatea asko baloratzen da inbersino barriak erakarteko, horrek zehazten dau lurralde batek zer goi-mailako estandar daukan. Eta zeregin horretan be segidu eta tematu behar dogu, lan egin eta inbertidu. Personen ondoizatearen arrazoi nagusia izateaz gainera, daukagunari eusteko eta handitzeko lagungarria da, zalantza barik.

Bizkaia asko aurreratu da azken urteotan, baina gehiago egin behar dogu, eta aurrera egin behar dogu horri jagokonez be. Jagoletza eta osasuna aztertzeaz gainera, dakizuen legez, elementu barri modura, aukera-nitxo barri bat, jarduera ekonomikoaren eta lan-aukeren alorrean be bai, oraintxe jorrazten dabilzanak, eta gu Nagusi Intelligence Centerren estrategiaren bidez lantzen gabilzanak, dakizuen moduan.

Inguruneak, ingurune egokiak, azpiegiturak be behar ditu, garraio-azpiegiturak, azpiegitura digitalak, biltzarretarakoak eta aretoak, lurzoru egokiak, portuak... hori be garrantzitsua da. Eta dakizuen legez, Aldundia horreetan guztietan be inbertiduten dabil: errepideak, BEC, Euskalduna, Portua, Metroa... Horretan guztian.

Eta, azkenik, fiskalidatea be bai. Zu beti agertu zara, eta gaur be esan dozu, zergen tasak beheratzearen alde, zerga guztietan. Zuen eredia da, zuek gura dozuena da. Hara, nik barriro ekarri deusut aurrekoan aitatu neutsuna, baina zerga-lehiakortasunaren gaineko erkidegoko txostena be badakartsut. Tax Foundationen babesagaz egin da, eta hau 2019koa da. Aurreko batean 2018koa aitatu neutsuen.

Bada, argitalpen horrek ez ditu kontuan hartzen, jakina, 2020an abiarazo genduzan neurri guztiak, gehiegizkoa litzateke, erabili doguzan babes-neurriei jagokenez. Baina egoera fiskal homogeneizadu, normalizadu baten, Bizkaiko Lurralde Historikoa, beste behin, lehenengoa da erkidegoen lehiakortasun fiskalaren alorrean. Beste behin. Zu hona zatoz eta lehiakorragoak ez garala dinozu, eta nik gogorarazoten deusut beste autonomia-erkidego eta lurralde batzuk baino lehiakorragoak garala.

Eta, halan be, errentaren marjinala beste lurralde batzuen gainetik mantentzen dogu. Badakizu Madrilek 43koa daukala, guk 49koa. Sozietateen gaineko Zerga, hori bai, estatukoaren azpitik daukagu, puntu bat. Ondarearen gaineko Zerga be mantenduten dogu. Zuk zeure eredia daukazu, guk beste bat daukagu, zuk baliabide publikoak gitxitu gura dozuz, tira, guk ez dogu horren alde egiten, guk behar dan orekari eutsi gura deusagu, eta lehen esan deusudan guztia egiteko baliabide publiko nahikoa euki. Lehiakortasun fiskalaren gorenean mantenduta, hori bai, baina ez uko egin, ezelan be, lehen aitatu dodazan eta hemen ondoizate-estatuari eta bizi-kalidateari eusteko guztiz garrantzitsuak diran beste gauza batzuk arlo publikotik jorrazeari, hori oso garrantzitsua da-ta inbersinoak mantenduteko eta barriak erakarteko. Muchas gracias.

La Sra. **PRESIDENTA / LEHENDAKARI** andreak: Muchas gracias, señor diputado general. En el turno de réplica, tiene la palabra la representante del Grupo Mixto-Partido Popular, señora Fernández Angulo.

La Sra. **FERNÁNDEZ ANGULO** andreak: Eskerrik asko, mahaiburu andrea.

Antza danez, urte politikoko azken kontrol-bilkurea izango da hau, eta, zer gura dozu esatea, bai, agintaldi honetan bigarrenez interpelatu deusut gai honeen gainean, baina seguru antzean, psikologoek dinoen legez, akats hori daukat, izan be, personok joerea daukagu kezkatzen gaituen gauzez berba egiteko. Eta, zer gura dozu esatea, kezkatuta nauka Bizkaiko egoera ekonomikoak, kezkatuta nauka erakargarria izateko daukan gaitasunak, talentua mantenduteko eta inbersino-aukera barriak eta, ondorioz, enplegu-aukera barriak sortzeko daukan gaitasunak. Beste persona batzuk beste gauza batzukaitik kezkatzen dira beharbada, baina ni eta nire taldea horregaitik kezkatzen gara batez be.

Batzuk dinoe ez erantzutea artea dala. Leitekena da halan izatea, baina nik pentsetan dot erantzuteko modu bat be badala, eta uste dot ez deusezula erantzun nik neure berbaldian egin dodazan itaun zehatzei, kezkatzen nauan arrazoi batengaitik, eta arrazoi hori da, neure ustez, ez daukuzula garbi zer erantzun emon mahai gainean ipini deusudazan 4 gai oso garrantzitsuen gainean: industria-politikea, politika fiskala, enpresentzako araudi-esparru administratiboa eta lehiakortasuna azpiegituren alorrean.

Esan deustazu “20 hilabete igaro dira eta pandemia bat egon da”. Bai, onartu beharra dago pandemiak hankaz gora ipini dauala jarduera ekonomikoa, eta, jakina, Bizkaiko ekonomia be bai, baina txertaketak aurrera egin ahala itxaropena jatorku, aukera bat dogu pandemiaren osteko etorkizuna imajinetako, eta zugaz bat nator gauza batzuetan: trantsizino digitala, trantsizino energetikoa, arindu beharra, baina erreforma batzuei ekin behar jake lehengo posizinoetara bueltetako. Baten batek esango dau “bilbainada” bat esatear nagoala, baina ez, uste dot aukerea daukagula, behar diran erreformak eginda, Euskadiren suspertze ekonomikoaren buruan egoteko. Behar doguna, errepikau egingo dot, industria-arloko plan bat da, industria-politika integral bat, gure lurraldean industria bizibarritzeko, eta ostera be izan daiten Bizkaiko ekonomiaren ardatz nagusia.

Kontau deustazu ze plan dagoan, Bizkaia Dorrea, eta abar, eta abar. Ez dot zalantzan ipiniko planak daukaguzala, ez dinot ezetz, finantziarino-tresnak, proiektuak, askotariko izen bitxiakaz, bide batez esanda, eta horreetako batzuk be baliabideak daukiez, baina daukaguna, batez be, arazo bat da, estrategia falta eta planifikarino zehatz baten araberrako industria-politika seriorik eza.

Leporatu deustazu behin eta barriro eskatzen dodala erreforma fiskala, orain dinostazu ez dogula holangorik behar, eta lehiakortasun fiskalaren gaineko txostenez berba egin deustazu. Imajinetan dot 2017an be, Deusto Business Alumnira joan zinanean, jakingo zenduala txosten horreek existiduten zirala, eta halanda be, zuk, han, nik gaur tribuna honetan eskatu dodan gauza bera eskatu zenduan. Eta gaur, tribuna honetan ikusten doguna da zuk esan zenduan hori, erreforma fiskal bati ekin behar jakola zerga-figuren zenbait alderdi doitzeko eta aldatzeko, konpromiso ustel bat dala, inoiz ohituko ez garan horreetakoa. Beharbada ez litzateke txarra izango foro berera bueltau eta egin barik lotu dan esandako haretaz berba egitea. Errealismo-irakaspen ederra izango litzateke, itxurakeriarzko erretorikaren hutsaltasunaren gaineko irakaspena, eta seguruenik oso lagungarria izango litzateke bertaratutakoei zer edo zer erakusteko kultura politikoren forma desegoki batez.

Erreforma fiskalaren gainean berba egiten dodala dinozu, tematuta nagoala eta eredu ezbardina daukadala, tira, nire ustez funtzionau leiken eredu bat daukat. Izan be, aitatu

deustazuz lehiakortasunaren gaineko txosten batzuk eta abar, baina zuk badakizu orain dala gitxi enpresak erakarteari buruzko datuak be argitaratu dirala, eta Euskadi, eta, ondorioz, Euskadiko ekonomiaren % 50eko ekarpena egiten dauana, Bizkaia, Espainiako batez bestekotik behera gagoz, joaten diran eta geureganatzeko gai garan enpresen arteko aldeari jagokonez. Beraz, hausnarketa egin beharko da, eta uste dot ez dala ona hausnarketa suntsitzailea egitea, “dana txarto dago” esanez, nik ez dot pentsetan dana txarto dagoanik, uste dot gauza batzuk dagozala egiteke, eta premia daukagula lehenbailehen egiteko.

Uste dot, era berean, gai izan behar garala bidesarien politikean posizino lehiakorra eukiteko. Seguru nago zuk Bizkaiarentzat onena gura dozula, neuk be gura dot onena Bizkaiarentzat, baina pentsau daigun garraioen, bidesarien, politika horrek, zuzenean eragiten deusela lehiakortasunari eta ekonomiari, eragiten deusan legez, berbarako, Supersurra eregiteko egin dan milioi askoko gastu ustel eta eraginkortasun bakoari, erabilera-ratioak hutsaren hurrengoak dira-ta, baina tira, gai horrek, seguruenik, beste eztabaida politiko espezifikoko bat beharko dau.

Azken baten, Rementeria jauna, eskatu gura deusut irailean, urte politiko barria hasten danean, ahalegin bat egin daizun Bizkaia hobetzeko ahulen dagoan kontuetan; izan be, uste dot lurralde dinamikoa, erakargarria egiteko helburu komun horretan (eta bat nator ahalmena daukala), neure eretxiz, gako batzuk gehitu behar dirala, horrek indar handiagoa hartu daian etapa honetan, zeinean osasun-krisia zelan amaitzen dan ikusiko dogun, eta aukereak ezagutuko doguzan.

Esan gura deusut, era berean, bide horretan, zuhurtziaz egindako erreforma zentzudunen bide horretan, baina lurraldearentzako etorkizuneko proiektu baten benetan sinistuta, talde hau topau daikezula. Muchas gracias.

La Sra. **PRESIDENTA / LEHENDAKARI** andreak: Muchas gracias a usted, señora Fernández Angulo. En el turno de réplica, tiene usted la palabra, señor diputado general.

El Sr. **REMENTERIA MAIZ** jaunak: Gracias otra vez, señora presidenta.

Hara, Fernández andrea, itaundu deustazu ze neurri hartzeko asmoa daukan Ahaldun Nagusiak, inbersinoa eta jarduera ekonomikoa erakargarriagoak izan daitezkan; erantzun egin deusut, inplementetan gabilzan neurri guztiak esanez, eta zuk dinostazu ez deusudala erantzun. Ba, zera, errepikau beharko deusut, hainbat ekintzatan murgilduta gagoz, gure enpresen balio-kate osoarentzat beharrezkoa eta garrantzitsua dan ingurune bat sortzeko. Eta adibideak emoten deusudaz, jorratzen gabilzan trantsizino guztiak, garrantzitsuak diranak automobilgintzaren arloan, aeronautikean, energian, mugikortasun jasangarrian, personen eta jagoletzaren alorrean, aukera-nitxo barrietan, jagoletzan eta osasunean... horri guztiari gabilz aurre egiten, eta erakunde hau, Aldundia, jardun horren parte da. Industria da? Bai, eta barritzea da, eta ikerketea, eta gure enpresei eta gure sare osoari laguntzea, hor egon daitezkan eta hor egoten segidu daian.

Horrenbestez, erantzuten ez deusudala dinozunean, ez dakit zer gehiago esan behar deusudan. Oso argi daukagu Bizkaian industria izan behar garala, eta industria izaten segidu behar dogula. Baina industriak ez dau funtzionetan *per se*, industriak funtzionau egiten dau, eta mantenidu egiten da, barriro inbertiduten daualako, eta berari lotutako ikerketa-eta barrikuntza-elementu oso garrantzitsuak dagozalako.

Zuk beti aitatzen dozu industriaren BPGa, eta industriaren BPGak hazten segidutea behar dogu, baina ez ahaztu industria horregaz loturea daukien zerbitzu aurreratu

guztiaz. Ez ahaztu sektore aurreratu horreetaz, manufaktura-industria bera bezain garrantzitsuak dira-eta, edo garrantzitsuagoak; bata ez da bestea barik biziko, horretaz konturatu gara. Eta guk, administrazioa garan aldetik, bultzadea emon behar deutsegu industriagaz lotutako zerbitzu aurreratu horreei.

Datuak emongo deusudaz: Bizkaiak, eta Euskadik, momentu honetan, % 35etik gorako BPGa daukie industriari eta zerbitzu aurreratuei lotuta, eta hurrengo urteetan BPGaren % 40ra heldu behar gara. Hori da lantzen segidu behar doguna, eta lagundu, lagundu egin behar dogu, industria-arloko enpresa gehiago sortzeko, baina barrikuntza-unitateakaz batera.

Erakarpen-politikea aitatu deustazu. Garbi daukagu gu beste lurralde batzuek lehian gabilzala, baina ez Espainian bakarrik, ez estatuan bakarrik, Europagaz eta munduagaz lehian gabilz. Halan gabilz eta denok gara jakitun, baina gure posizinoak, inbersinoak erakarteko gure politikeak, badaukaz printzipio batzuk be, baremo batzuk, parametro batzuk, eta gustetan jaku horreek betetea. Ezin gara edozelan hazi, edozein modutan, oso argi daukagu hori.

Horrenbestez, errepikau egingo deusut, inbersino bat erakarri gura dogunean, landu egiten dogu inbersino hori, baina Batzar Nagusi honeetan beti kritiketan dogun gauza bat eragozteko: inbersinoa deslokalizatzea. Oso erraza da enpresa bat erakartea gaur, baina, 3 urte barru kontua ez dabilela ikusten dauanean, deslokalizatzea. Eta zer dakar horrek? Haustura itzela, bizitza-proiektuen hausturea, lanpostuak galtzen diralako. Hori eragotzi behar da, eta zelan eragozten da? Haregaz batera, beraren barrikuntza-unidadeak erakarrik. Enpresa hori erakartean, erakarten dan momentu beretik, behartu egin behar da, edo lagundu egin behar jako, gure ingurunea zein dan azaldu, eta enpresak hemen berrinbertidu behar dauala esan, eta bere barrikuntza-unidadeak hona ekarri behar dituala. Hala eginda, ez dogu inbersino hori blindauko, baina askoz gehiago sustraitzea lortuko dogu. Parametro horreekaz funtzionetan dabe erakunde honeek, eta, horreen artean, Bizkaiko Foru Aldundiak. Holan egiten dogu erakarpen-politikea; ez laguntza zuzenak emonez, dirua emonez, etorri daiten, ikusi daian, eta gero erraz deslokalizau daiten. Horregaitik, printzipio horreek eta baremo horreek oso, oso garrantzitsuak dira guretzat.

Hain zuzen be, berrinbertiduteko, barritzeko, fiskalidate egokia daukagu, eta kenkariak dagoz inbersino finkoen alorrean, kenkariak barrikuntzaren alorrean, Soziedadeen gaineko Zergaren 64 bis artikularen kenkaria... Tresna horreek guztiak ez dira existiduten estatuan, Zerga Administrazinoko Estatu Agentziak ez daukaz, guk bai. Zertarako? Barriro dinotsut, enpresa horreek eta etorri daitekezan inbersino horreek gehiago errotzen ahalegintzeko.

Fiskalidate aiatu deustazu ostera be. Hara, bidesariak, esan dautsudanez, bidesariak balio txikia dira esparru horren barruan, edo faktore esanguratsu horreen barruan. Fiskalidate murriztua proposau deustazu, nik ulertzen dot zure eredia, esaizu argi, zure eredia Madril da. Gainera, oso emoitza ona euki dozue hauteskundeetan, hara. Baina nik adierazo gura deusut hori ez dala ezelan be geure eredia. Ez daukat denbora luzerik, eta labur esango deusut. Begiratu, Madrilen, persona aberatsenen % 20, pobreenen % 20gaz konparauta, Europa osoko ezbardintasunik handiena Madrilen dago. Hori dakar eredu horrek, guk ez dogu gura eredu hori. Guk oreka fiskala gura dogu, enpresak erakartea adierazo deusudan moduan eta adierazo deusudan ereduaren arabera, baina lan handia egin behar dogu, ezbardintasun horreek eragozteko. Ez da gure eredia; zurea bai beharbada, baina, barkatu, gurea ez. Muchas gracias.

La Sra. **PRESIDENTA / LEHENDAKARI** andreak: Gracias a usted, señor diputado general. 4º punto del orden del día:

El Sr. **SECRETARIO SEGUNDO / BIGARREN IDAZKARI** jaunak:

4.- Examen, debate y votación, en su caso, del/de los escrito/s sobre:

Iniciativa Originaria: Interpelación
([R.E.11/E/2021/0002015](#))

Autor: Fernández Medrano, Héctor (EB)

Asunto: Las implicaciones para Bizkaia de la ampliación del museo Guggenheim.

Documento Principal:
([R.E.11/E/2021/0002015](#))

Expediente: ([11/B/18/0002529](#))

4.- Hurrengo idatziari(ei) buruzkoak aztertu, eztabaidatu eta, halan bajagoko, bozkatzea:

Jatorrizko ekimena: Itauna
([11/E/2021/0002015SE](#))

Egilea: Fernández Medrano, Héctor (EB)

Gaia: Guggenheim Museoa zabaltzeak Bizkairako izango leuken eragina

Dokumentu Nagusia: ([11/E/2021/0002015SE](#))

Espedientea: ([11/B/18/0002529](#))

La Sra. **PRESIDENTA / LEHENDAKARI** andreak: Es el turno del proponente. Así pues, señor Fernández Medrano, tiene usted la palabra.

El Sr. **FERNÁNDEZ MEDRANO** jaunak: Muchas gracias. Buenos días a todos y todas.

Honezkerok hamar urte baino gehiago bada be gaiaz berba egiten dala, Guggenheim handitzeaz, orain dala urtebete, gitxi gorabehera, Euskera, Kultura eta Kirol Batzordean horretaz itaundu geuntsun. Momentu haretan erantzun euskuen ez zala lehenasunetako bat, zelanbait esatearren, Aldundiarentzat, eta gitxiago museoarentzat berarentzat, COVIDak eragindako egoera zala-ta galera ekonomikoak leuntzen ebilen eta. Are gehiago, komentau euskuen neurri horretako zeozer Plan Estrategikoan sartzeko hausnarketa sakona beharko zala.

Abenduan, ordurako Europako funtsen promesea egoala, zabalkunde-proiektua agertu zan funts horreetaz baliu gura daben ekimenen oinarritzko zerrendean. Orduan ikusi genduan beharrezko hausnarketa ha, antza danez, eginda dagoala lehenagotik, eta galdu ezin dan aukera bat dagoala esaten da.

Orain dala gitxi, gai honen ibilbidearen azken puntuan, Guggenheim Fundazioak Urdaibaiko Guggenheimerako zabalkunde-plana berreskuratu eta eguneratu eban, baita aurkeztu be. Alde ekonomikoari jagokonez, oker ez banabil, 127 milioi euro dira, eta asmoa da horreetatik 81, gitxi gorabehera, europar funts ospetsuakaz finantzatzea. Egia da oposizioaren hutsegitea izan dala beharbada gai honetaz abenduan bertan interpelau ez izana, zerrendean agertu zanean, baina horregaitik, zelanbait, orain egiten gabiliz interpelazinoa. Ez dakit nork erantzungo deustan, Loreak edo Unaik.

Horreek holan, itaundu genduan lehenengo puntua zan funtsezkoena, hau da, zergaitik babesten dauan Aldundiak Guggenheim Fundazioaren proiektua, eta zer beharizanetan oinarrituta. Esan gura dodana da, batez be, ea nora joango lirateken Next Generation EU funtsak. Esan dot beste esparru batzuetan, galdera honen arrazoia da uste dogula, edo ikusten dogula, Bizkaia ez dala basamortu bat kulturearen aldetik, eta ugariak dirala mota askotako kultur ekimenak. Zergaitik egin apustua karta bakar baten alde? Eta zergaitik karta bakar hori fundazio pribatu bat izan behar da, guztiz sendoa, eta ez alde ekonomikotik bakarrik, eta nazioarteko zabalkunde ia infinitukoa? Gure eretziz, Next Generation EU funtsak, finantziarazino trerrez edo mekanismoaz berataz egin daikergun balorazinoa albo batera itxita,

suspertze-tresna dira, egin diran asmo-adierazpenen arabera. Asmo horreek pandemiak eragindako egoeratik indartuta urteteko aukerean daukie oinarria, kate ekonomiko eta sozialak konpontzeko aukerean, etab.

Horrenbestez, eta ildo horretan, geure buruari itauntzen deusagu ea, zelan edo halan, ez gabilzan bazterrean ixten Bizkaiko beste kultur eragile horreek guztiak, apalagoak, eta seguruenik horrexegaitik Europako suspertze-funts horreen premina handiagoa daukienak. Geure balorazioa eginda daukagu beste leku batzuetan, jakina, eta haxe da: Guggenheimek ez daukala behar ezelango suspertzerik, badauka indarririk berez, eta urteroko aurrekontu orokorraren bidez emoten deusagun milioietako kultur hamarrenaz gainera, krisi honi eta seguruenik datozen guztiei aurre egiteko gaitasun nahikoa eta sobera daukalakoan gagoz. Orduan, zergaitik, guk defendauko geunkean banaketaren planteamenduaren orde, apustua egiten da ustez ailegauko dan kapitala kontzentretako fundazino pribatu baten megaproiektuan? Megaproiektu berdea, hori bai.

2. eta 3. puntuak ildo beretik doaz, uste dot. Gure itauna honakoa da: zer inpaktu eragin daike proiektuak eskualdean eta Bizkaian, alderdi guztietatik begiratu? Kulturala, ekonomikoa, ekologikoa, etab. Izan be, gure ustez, proiektuaren ezaugarriak dirala-ta, askotariko interesak, aukerak eta motibazioak alkartzen dira bertan.

3. puntua hau da: zelan ikuskatu gura dau Aldundiak alderdi horreen guztien arteko alkarrekintzak (turistikoa, kulturala eta abar) onbidean egiten dirala, zelan ikuskatu daiteke proiektuaren alderdien arteko hartu-emon hori, eta ze balorazio egin eben proiektuaren planaz –hau zehatzagoa da– Urdaibaiko Biosferaren Erreserbako Patronatuko gainerako kideek? Hau da, proiektuaren alderdiez galdetzen dogu, ondorioez, eta hareen kontrolaz. Hori da interpelazino 2. eta 3. puntuen ildo.

La Sra. **LAESPADA MARTÍNEZ** andreak: Muchas gracias. señora presidenta. Eskerrik asko, Duque andrea, zure itaunagaitik eta, ostera be, LGTBI kolektiboari arreta emoteagaitik. Eta barrero adierazo gura dot azken asteotan zenbait personak Euskadin jasandako erasoen kontrako gaitzespenik irmoena. Uste dot bidea dagoala oraindino egiteko, eta garrantzitsua da horretaz berba egitea, ez diskriminatzeaz, LGTBI personei errekonozimentua emoteaz, ezelango duda barik.

Galdetu deustazu zein mailataraino bete dan EAJk, PSEk, Elkarrekin Bizkaiak eta Bilduk, igazko irailaren 9an onartutako Arauz Besteko Proposamenean lortutako akordioa. 9 hilabete, Duque andrea, 9 hilabete, ez urtebete. Proposamen haretan, 7 puntu beteteko eskatzen jakun, puntu asko egoan, eta horreen artean gauza asko; barbarako, indarkeriaren aurkako erantzun-protokoloak sortzea, sentsibilizazio-kanpainak kaleratzea, eskubideak bermatzeko neurriak hartzea, eta abar, eta abar.

Ondo da, zer egin dogu 9 hilabeteotan? Ba, lehenengo, 2021-2023rako Dibersidade eta Inklusinorako Plana onartu dogu; horrek aukerea emoten deusku ordenetako, eta zelan esku hartu jakiteko. Dibersidadea ordezkutzen daben eragileen pluraltasunagaz egin dogu plan hori, eta LGTBI kolektiboak be egon dira, jakina. Planak beste bultzada bat emoten dau alkarregaz biziteko, diskriminazioari aurre egiteko. Izan be, plana onartzearen ondorioz, martiaren 23an martxan ipinten hasi ginan parte-hartzezko alkarrizketearen mahai iraunkorra, planaren sektoreko entitateakaz, martxan ipinteko. 3 lan-batzorde daukaz, komunikazio-ekintzen kudeaketarako tresnak, sensibilizazio-kanpainak be horren barruan dagoz, eta ezagutza kudeatzeko.

Apirilaren 13an dirulaguntza-deialdi barriaren Foru Dekretua onartu genduan. Igoera dauka aurrekontu-zuzkidurean, % 10eko gehikuntza, dibersidade afektibo-sexualeko eta familia-dibertidadeko proiektuei diruz laguntzeko.

Eta maiatzaren 17an, ondo dakizun lez, homofobiaren, lesbofobiaren, transfobiaren eta bifobiaren aurkako eguna dan horretan, sensibilizazio-kanpaina ipini genduan martxan sare sozialetan eta hedabide digitaletan, “bizi bihotzak eskatzen dizun bezala, askeak eta berdinak eskubidez” goiburuagaz. Kanpainan, diskriminazioaren kontrako borrokeagaz konpromisoa berretsi genduan.

Azkenik, beharrea segiduten dogu dibersidadearen ikuspuntua zeharkakoa izateko, lankidetzaren aktiboan segiduten dogu zeharkakotasuneko eta diskriminaziorik ezeko politika guztiak ikus daitezkan Aldundi osoan, eta pozik gagoz. 9 hilabete igaro dira, 7 puntu eukan Arauz Besteko Proposamen bat; horrenbestez, uste dot 9 hilabetean zer edo zer bete dogula. Nire ustez, apurka-apurka goaz, pausu sendoz, pausu seguruz, eta urrun heltzeko, batzuetan, beharrezkoa da pausuak sendoak izatea. Uste dot horretan gabilzala. Besterik ez.

La Sra. **PRESIDENTA / LEHENDAKARI** andreak: Gracias, señora Laespada. En el turno de réplica, tiene usted la palabra, señora Duque Santacoloma.

La Sra. **DUQUE SANTACOLOMA** andreak: Gracias.

Bai, egia da, 9 hilabete izan dira. Irailean onartu genduan, uda zala-ta, pandemia zala-ta, eta Elkarrekin Bizkaiak eta EH Bilduk egin genduzan proposamenak, azkenean, iraileko batzordera eroan ziran, 9 hilabete, egia. LGTBIfobiaren aurkako Eguna maiatzaren 17a da, ez 18a, bide batez. Horreek txikikeriak dira. Garrantzitsuenak lortu genduan akordioa da, zuk aitatu dozuzan alderdien artean, Teresa, egia da, baina Alderdi Popularrak be babestu eban azkenean, uste gendualako garrantzitsua zala segimendua egitea, beste gai batzuetan egiten ahalegintzen garan legez. Esan dogu beste batzuetan, indarkeria matxistari jagokonez, eta LGTBIfobiari jagokonez be bai, gure helburua akordio zabalak lortzea izango dala, baina egia da, bestalde, tasatu barik badagoz egiten dan lanaren segimendu apur bat egin beharra dagoala.

Inklusino Planaz berba egin dozu, eta aurkezpena egin zan batzordean, guk eskertu egin genduan plana aurkeztea, zeina Aldundiaren barruan be mugarria zan, eta egia da LGTBI dibersidadeko gaiak plan horren barruan dagozala, baina lortu zan akordioan badagoz beste puntu batzuk, kolektiboari begira espezifikagoak, eta guretzat garrantzitsuagoak. Izan be, lau taldeok egindako akordioa izan zan, beti galtzen da zer edo zer, eta guk puntu jakin batzuk proposau genduzan. Eta EH Bildurentzat zelanbait garrantzitsuenak ziranen artean lehenengoa egoan, koordinazio- eta arreta-protokolei eta erakunde guztien arteko erantzun publiko instituzionalari buruzkoa. Ez da ezer esan horretaz. Gogorazio behar da, era berean, akordioa COVID testuinguru baten lortu zala, eta puntu gehienek kolektiboari zuzenean eragin eutsien ondorioakaz zerikusia eukiela.

Eta hirugarren puntua be nahiko esanguratsua begitantzen jakun, eta ez dozu ezer aitatu. Espero dogu inklusino-plan horretan pausuak emongo dirala noranzko horretan, baina baegoan puntu interesgarriak; esate baterako, bizitegi-ingurune baten adineko LGTBI personak askatasunez eta diskriminazio barik bizi ahal izatea euren sexu- eta genero-aukerea.

Modu berean, Elkarrekin Bizkaiak proposau eban transexualidade-egoeran dagozan ume eta nerabeak umezaroko politiketan sartzea. Ba, horretaz be ez dogu ezer entzun. Eta, horretaz gainera, andrazko transexualei zuzendutako formazio- eta espezializazio-

programak, jasaten dabezan langabezia-tasa handiak eragozteko; horrek be, Teresa, zuzeneko loturea dauka zure Sailagaz, enpleguaren gaiak.

Eta, azkenik, beharbada apurtxo bat sinbolikoagoa zana, zelanbait esateko, Foru Liburutegiko funts bibliografikoak hornitu daitezala LGTBI gaiagaz zerikusia daukien liburuakaz. Muchas gracias.

La Sra. **PRESIDENTA / LEHENDAKARI** andreak: Gracias a usted, señora Duque Santacoloma. En el turno de réplica, tiene la palabra la representante de la Diputación, señora Laespada.

La Sra. **LAESPADA MARTÍNEZ** andreak: Bai, halan da, Duque andrea, 7 puntu daukaz, horreetako batzuetan beste erakunde batzuk eta harekaz zelan koordinatu aitatzen dira. Dakizun lez, pandemia bat jasan dogu, eta lehentasunak egon dira beste arlo batzuetan. Beste arlo batzuk be aitatzen dira, beste sail batzuetakoak, eta horreek be badakie egin behar dabela, eta konpromisoa ez eban hartu Ahaldun honek, Aldundi osoak baino; horrenbestez, ekin egin beharko deutse, eta badabilz, baina pandemia euki dogu adinekoen egoitzetan be bai, eta gauza zehatz batzuk lehenetsi behar izan dira.

Uste dot bagabilzala, eta berretsi egiten dot Aldundiaren konpromisoa apurka-apurka hau egiteko, uste dot egiten gabilzala.

Enplegarritasun eta prestakuntzako planei jagokenez, ez dago ezelango diskriminazio absoluturik horreek txertatu ahal izateko, eta badakit zu plan espezifikoez zabilzala berbetan, ez dago egiteko arazorik kolektiboa gure ondoan egongo bada eta egin gura badau, baina nik neuk uste dot, gainera, puntu horretan ekimena txarto bideratuta dagoala, eta azaldu egingo deusut. Persona transexualentzako prestakuntza espezifikoko ikastaro bat egiteak esan gura dau persona transexual guztiek prestakuntza-ikastaro bera egin gura dabela. Beharbada hobe da diskriminazio bakar bat be ez egotea, eta are, diskriminazio positiboaren bidez daborduko egiten diran ikastaro batzuetan sartu ahal izatea, oztopo barik. Baina persona espezifikoentzako ikastaro espezifikoak egiteak esan gura dau persona transexual guztiei esango deutsegula zein izango dan prestakuntza zehatza? Zalantza modura dinot hau, lanerako elementu modura. Horretaz aparte, gainerako herritar guztien baldintza bardinetan sarbidea emotea.

La Sra. **PRESIDENTA / LEHENDAKARI** andreak: Muchas gracias, señora Laespada. 7º punto del orden del día.

El Sr. **SECRETARIO SEGUNDO / BIGARREN IDAZKARI** jaunak:

7.- Examen, debate y votación, en su caso, del/de los escrito/s sobre:

Iniciativa Originaria: Pregunta oral en pleno ([R.E.11/E/2021/0002019](#))

Autor: Fernández Angulo, Amaya (GM/TB-PPB)

Asunto: Una final de la Eurocopa League y de la Champions femenina.

Documento

([R.E.11/E/2021/0002019](#))

Principal:

7.- Hurrengo idatziari(ei) buruzkoak aztertu, eztabaidatu eta, halan bajagoko, bozkatzear:

Jatorrizko ekimena: Ahozko erantzun-eskea Osokoan ([11/E/2021/0002019SE](#))

Egilea: Fernández Angulo, Amaya (GM/TB-PPB)

Gaia: Eurocopa League dalakoaren eta emakumezkoen Champions dalakoaren final bana

Dokumentu Nagusia: ([11/E/2021/0002019SE](#))

Expediente: [\(11/B/25/0002532\)](#)

Espedientea: [\(11/B/25/0002532\)](#)

La Sra. **PRESIDENTA / LEHENDAKARI** andreak: Señora Fernández Angulo, tiene usted la palabra.

La Sra. **FERNÁNDEZ ANGULO** andreak: Eskerrik asko, mahaiburu andrea, egun on barriro.

Zenbait gauza jazo dira tribuna honetan gai honetaz eztabaidatu genduan azkeneko biderretik. Besteak beste, gutako asko ezaxola ixten ez gaituen eta itxi ezin gaituen bat. Prentsako izenburu bategaz laburbilduko dot: “Urkulluk baimena emon dau estadioak zabaltzeko, UEFARI ipini eutsazan baldintzak bete barik”. Beharbada esango deustazue, eta ez dot arrisku hori euki gura, iraganari lotuta nagoala, edo etorkizunik ez daukana baino ez dala lotzen iraganean, horregaitik beste gauza bat gehituko dot; orain, UEFAk Europa Leagueren eta andrazkoen Champions Leagueren final bana Bilbora ekarriko dituala dakigun honetan, neuri gustauko litxakit Foru Gobernuak kamara honetan azaltzea zer parte-hartze eukiko dauan Bizkaiko Foru Aldundiak ekitaldi horreetan, baita parte-hartze ekonomikoa be, eurotan zenbatu daitekeana. Eskerrik asko.

La Sra. **PRESIDENTA / LEHENDAKARI** andreak: Gracias, señora Fernández Angulo. En el turno de réplica, tiene la palabra la representante de la Diputación, señora Basurko Urkiri.

La Sra. **BASURKO URKIRI** andreak: Gracias señora presidenta, buenos días de nuevo a todos y todas.

Después de que el pasado abril, la UEFA, la propia UEFA, invalidara unilateralmente el contrato suscrito por la Federación Española de Fútbol y el Ayuntamiento de Bilbao, sin que hubiera ningún incumplimiento por parte de la sede de Bilbao, tal y como informé en mayo en la Comisión de Promoción Económica de estas Juntas Generales, el Ayuntamiento de Bilbao, en coordinación con las instituciones vascas, inició un examen jurídico de cara a buscar el mejor modo de validar los derechos que tenía en el contrato, para obtener una indemnización económica, por el proyecto y por la imagen de la ciudad.

Los servicios jurídicos del Ayuntamiento de Bilbao, con ayuda de asesoría experta, estudiaron la manera de hacer valer los derechos de la sede de Bilbao. Y las tres instituciones, el Ayuntamiento de Bilbao, el Gobierno Vasco y la Diputación Foral de Bizkaia, acordamos que la decisión que adoptáramos sobre las acciones legales a realizar sería consensuada por las tres instituciones.

Por otra parte, seguimos negociando con la UEFA, mientras preparábamos la demanda judicial por incumplimiento unilateral de contrato, para conseguir la indemnización por el proyecto y por la imagen de la ciudad sin necesidad de acudir a los tribunales.

Negoiazino horrek emoitza positiboa euki dau, euskal erakundeek tinkotasunez defendidu dabez-eta herritarren eta kalte gehien jasan daben sektoreen interesak, baita euskal erakundeen nazinoarteko irudia be.

Danok dakizuen legez, UEFAk konpromisoa hartu dau euskal erakundeei 1,3 milioi ordaintzeko; halan, Euro 2020 ekimena antolatzeke egindako inbersinoa berreskuratuko da. Eta, gainera, konpromisoa hartu dau San Mamesen klubena Europa Leagueren final bat eta klubena andrazkoen Champions final bat egin daitezana, hurrengo urteetan. Kirol-ekitaldi bi, nazinoarteko eragina eta eragin ekonomiko handia eukiko dabezanak hurrengo urteetan, batez be merkataritzaren, ostalaritzaren eta jatetxeen eta zerbitzuen sektoreetan.

Erabagi hori, data zehatzak eta guzti, UEFAk garagarriko lehenengo egunetan egingo dauan batzarrean berretsiko da.

Hiru euskal erakundeok, Bilboko Udalak, Bizkaiko Foru Aldundiak eta Eusko Jaurlaritzak, aliantzari eutsiko deusagu etorkizunean kirol-ekitaldi horreek antolatzeke, eta lan serio, profesional, koherente eta ardurazkoa egingo dogu, orain arte egin dogun moduan. Bizkaiko Foru Aldundiaren asmoa Eurokopan erabilitako lankidetzak-moldeari eustea da, hau da, hiru erakundeok babesak emotea ekimen barriari, eta Bilboko Udalak “Host City” izaten segidu daiala eta harek izenpetu daiala kontratu barria UEFAgaz.

Momentuz ez da finkatu hiru erakundeen arteko akordioarik, ekitaldi horreen baldintzak zehazteke begira gagozan bitartean. Momentua ailegetan danean, Aldundiak behar dan lankidetzak-hitzarmena egingo dau Udalagaz, eta jagokon zenbatekoa be zehaztuko da.

Horrenbestez, zuzenean erantzutean adierazo dodan legez, hiru erakundeon asmoa “Eurokopa 2020rako Bilboko Egoitza”rako eukitako lan-eskema berari eustea da. Muchas gracias.

La Sra. **PRESIDENTA / LEHENDAKARI** andreak: Gracias a usted, señora Basurko Urkiri. En el turno de réplica, tiene la palabra la representante del Grupo Mixto-Partido Popular Bizkaia, señora Fernández Angulo.

La Sra. **FERNÁNDEZ ANGULO** andreak: Estadioak zabaldu daitekezala dakigun honetan, intzidentzia-tasa, ZIUko oheak eta txertaketea bera okerrago egonda San Mamesen Espainia ikusteko inposautako baldintzak baino, geure buruari itauntzen deusagu, eta zuri galdetu behar deusut, ze aurrekoan Rementeria jaunari itaundu geuntsan, gaur ez dago Bilkura honetan gaiaz berba egiteko, zuek ardurabakoa izatea leporatu zeunsten gitxi gorabehera, bizkaitarren osasunari lehenastunik ez emotea eta abar.

Orduan, neuri gustauko litxakit jakitea nora joan diran tribuna honetan esandako berba hareek, Bizkaiaren aldeko konpromisoaren gainean, eta lurraldeko gizon-emakumeen osasunagaz arduraz jokatzearen gainean. Pentsetan dot momentu honetan Rementeria jaunaren ardura, edo zurea, Urkullu jaunak eukanaren ezbardina dala beharbada; beharbada handiagoa, edo txikiagoa. Hara, ez, erantzuna ez da hori, erantzuna da hau politikea dala, beste barik, baina politika txarra.

Jazoerek arrazoa emon deuskue esan genduanoi Bilbo eta Bizkaia Eurokopa barik ixtea jokabide ideologikoa izan zala, osasuna lehenestearan atxakiagaz bete ezinezko baldintzak ipinita. Orain dala gitxi Ahaldun Nagusi jaunak esan eban gai hau konpontzeke moduak adierazoten dauala Bilboko egoitza honek ahalmena daukala. Eta bai, halan da, Bilbok eta Bizkaiak ahalmena daukie, guk bagenkian, Bizkaiak ahalmen handia dauka, zuen kudeaketea, eta gai honetan Jaurlaritzak egindako kudeaketea, izan dan modukoa izan arren. Jakina Bilbo eta Bizkaia Eurokopa hartzeke prest egozala, arazoa da Gobernuak ez egoala.

Orain, nazinoartean distirea emoteke aukera be galdu dogula dakigun honetan, eta gure merkataritzaren, hotelen eta ostalarien sektoreak negoziak egiteke aukera be

galduta –a ze suertea euki daben sevillarrek!–, orain, zorionez, UEFA ez dago zuek ipini zenduen alde ilunean, ez dakit Espainiako Futbol Federazioak patu bera euki dauan. Honenbestez, pozez ospatu geinke etorkizunean, hori bai, ordurako hauteskunde-datak bistan dagozala, jakina, Europa Leagueagaz eta andrazkoen Champions Leagueagaz gozau ahal izango dogula, eta esan gura deusuet, eta amaitu egingo dot, guk apustu egiten dogula, ni bat nator esan dozun horregaz, uste dot Aldundiaren egitekoa erabagigarria dala prestatzeko eta sektore ekonomiko kaltetuenei ilusinoa emoteko, kirol-ekitaldi horreei begira, eta egia da, zure erantzunaren arabera, itxaron egin beharko dogula oso garrantzitsua dan hori ezagutzeko, ze, aitatu dira berreskuratu doguzan 1,3 milioiak, bueno, ikusiko da, aukerea eukiko dogu hori be xehe aztertzeko, baina jakin gura dogu zenbat kostauko jakun. Edozein enpresak, proiektu baten sartzen danean, hori jakin behar dauan moduan, zenbat euro izango diran; garagarrilera arte itxaron behar dogu, txarto ulertu ez badeutsut, xehetasunak finkatu arte, UEFAgaz egingo dan batzarrean, eta horren ostean euskal akordioa egongo da administrazioen artean, euskal erakundeen artean, bakotxaren inplikazio ekonomikoa zein izango dan banatzeko.

Niri gustauko lixakit zuk tribuna honegaz konpromisoa hartzea, hori prest dagoanean kamara honi informazio hori helarazoteko, garrantzitsua dala begitantzen jat-eta, ze, azken baten, hauteskundeen datatik hurbil egoteaz gainera, uste dot bizkaitarrok horren letra txikia ezagutu behar dogula, hau da, horrek zelan eragingo deusien erakunde honen aurrekontuei. Eskerrik asko.

La Sra. **PRESIDENTA / LEHENDAKARI** andreak: Gracias a usted, señora Fernández Angulo. Y en el turno de réplica, tiene la palabra la representante de la Diputación, señora Basurko Urkiri.

La Sra. **BASURKO URKIRI** andreak: Gracias, señora presidenta. Tira, gai honi jagokola esanda daukaguz aurretik gauza batzuk, baina erreparoa egingo dot, kronologia apur bat egitearren.

Lehenik eta behin, euskal erakundeok Eurokopari buruz UEFAgaz sinatutako kontratuan ezarritakoa bete dogu beti, bete egin dogu. Eurokopa antolatzeke eurakaz egindako lan-prozesuaren epeakaz bat etorrita, ikusle-kopuruagaz zerikusia eukien baldintzak jakinarazo genduzan, jaramon eginda, zelan ez, osasun-agintariek emondako jarraibideei, pandemiaren momentu haretan. UEFAk aldebakarreko erabagia hartu eban, eta horren probea da gaur egun egiten daben aitortza, gaur egun egiten daben aitortza, heldu garan negoziazio honetara heldu ahal izateko, horri esker 1,3 milioi euro emongo deuskuez atzera, eta beste aukera batzuk ekarriko deuskuz.

Honenbestez, 3 erakundeok UEFAgaz lan egiten segiduko dogu aukera horreek gauzatzeko, garagarriean hasiko gara berbetan, ikusiko dogu zenbat denbora behar dogun kontuak zehazteko, eta konpromisoa hartzen dot, jakina, kontuok zehaztuta dagozanean kamara honi informazioa helarazoteko. Muchas gracias.

La Sra. **PRESIDENTA / LEHENDAKARI** andreak: Gracias, señora Basurko Urkiri. 9º punto del orden del día:

El Sr. **SECRETARIO SEGUNDO / BIGARREN IDAZKARI** jaunak:

9.- Examen, debate y votación, en su caso,

9.- Hurrengo idatziari(ei) buruzkoak aztertu,

del/de los escrito/s sobre:

Iniciativa Originaria: Pregunta oral en pleno
([R.E.11/E/2021/0002035](#))

Autor: Arriola Alzola, Iratxe (EHB)

Asunto: Servicio de tiketing de Gaztelugatxe.

Documento **Principal:**
([R.E.11/E/2021/0002035](#))

Expediente: ([11/B/25/0002541](#))

eztabaidatu eta, halan bajagoko, bozkatzea:

Jatorrizko ekimena: Ahozko erantzun-eskea
Osokoan ([11/E/2021/0002035SE](#))

Egilea: Arriola Alzola, Iratxe (EHB)

Gaia: Gaztelugatxeko tiketing zerbitzua

Dokumentu Nagusia: ([11/E/2021/0002035SE](#))

Espedientea: ([11/B/25/0002541](#))

La Sra. **PRESIDENTA / LEHENDAKARI** andreak: Señora Arriola Alzola, tiene usted la palabra.

La Sra. **ARRIOLA ALZOLA** andreak: Gracias, señora presidenta.

La Diputación Foral de Bizkaia va a abrir la accesibilidad a San Juan de Gaztelugatxe mañana mismo, 1 de julio, y a raíz de esa apertura se plantea que las personas hagan un recorrido circular para visitar el biotopo protegido, entre Urizarreta y Ermua. Para regular el flujo de visitantes desde que sucedió el desprendimiento, el de enero, se plantea el sistema de ticketing que funcionaba anteriormente, y un límite de 960 personas.

La pregunta es qué medidas va a tomar la Diputación Foral de Bizkaia para evitar que puedan entrar quienes hagan especulación o reserva con los servicios de ticketing de Gaztelugatxe. Nada más. Muchas gracias.

La Sra. **PRESIDENTA / LEHENDAKARI** andreak: Gracias, señora Arriola Alzola. En el turno de réplica, tiene la palabra la representante de la Diputación, señora Antxustegi Ziarda.

La Sra. **ANTXUSTEGI ZIARDA** andreak: Muchas gracias, señora presidenta. Buenos días a todos y todas.

Desde marzo de 2019 es imprescindible hacer reserva previa, mediante la plataforma habilitada a tal efecto. Se estableció esa medida para regular y controlar el aforo de ese biotopo protegido, y, así, contribuir a proteger el entorno y también a garantizar la seguridad de las personas que lo visitan.

Antes del COVID-19, el aforo de Gaztelugatxe era de 3.024 personas por día. En aquel entonces, se podían hacer los siguientes tipos de reserva en la plataforma digital:

- Reserva individual, para 15 personas como máximo.
- Reservas de grupo, entre 15 y 55 personas.
- Y reservas efectuadas por turoperadores, con un máximo de 110 personas por reserva.

Con la llegada de la COVID, la situación cambió. El aforo permitido, tal y como usted ha dicho, se redujo a 960 personas, para garantizar que se cumplen las medidas de

protección establecidas por las autoridades sanitarias. Y la única opción que hay ahora para hacer reservas es la de reserva individual.

En el proceso de reserva se han establecido varias medidas, para evitar las situaciones que se mencionan en el planteamiento de esta pregunta.

En primer lugar, para que la reserva no se haga de manera automatizada, el sistema hace una pregunta de control para obtener la reserva.

Después de formalizar la reserva, la persona que la ha hecho tendrá un plazo para entrar a Gaztelugatxe: desde 10 minutos después de hacer la reserva hasta una hora después. Si la persona no se presenta en el plazo indicado en la reserva, la consecuencia es que no podrá hacer más reservas durante un año.

Por otra parte, técnicamente hay una plataforma que se usa para obtener datos sobre la situación de las reservas, para que no haya fraudes.

Pronto, además de todos esos controles, se rastrearán y analizarán las reservas individuales para detectar posibles fraudes y, de esa manera, poder establecer medidas correctoras. En el futuro también se aplicará ese análisis a las reservas para grupos y turoperadores.

En la pregunta habla usted de especulación. A ese respecto, debo decir, al menos por lo que sabemos, y así ha sido hasta ahora, que, junto a las reservas de esos turoperadores y empresas turísticas, se ha hecho siempre un paquete de viaje, que recoge otras actividades además de la visita a Gaztelugatxe. Esas actividades tienen un coste, incluido el transporte al propio Gaztelugatxe. Por lo tanto, se puede considerar que es alarmista decir que se especula con las entradas para visitar este lugar.

De cualquier manera, quisiera precisar que la regulación de esas ofertas de viaje queda fuera del ámbito de competencias de este departamento. Muchas gracias.

La Sra. **PRESIDENTA / LEHENDAKARI** andreak: Muchas gracias a usted, señora Antxustegi Ziarda. En el turno de réplica, tiene la palabra la señora Arriola Alzola.

La Sra. **ARRIOLA ALZOLA** andreak: Sí, gracias, señora Antxustegi, por su respuesta.

Sin embargo, tengo aún un par de dudas. Una es sobre el coste de los tickets de entrada, ya sabe usted que anteriormente también se plantearon dudas acerca de eso, concretamente acerca de cobrar en un espacio que es de dominio público. Hubo distintos informes, etc., sé que se ha establecido un precio público, pero también me gustaría escuchar su opinión sobre eso. Y, por otra parte, me causa dudas el aforo de 960 personas por día que se ha establecido en una zona de desprendimientos y en un collado inestable, porque el último desprendimiento fue a principios de año, pero los desprendimientos comenzaron ahí en 2009, y hay informes del personal técnico del Departamento de Medio Ambiente de la Diputación Foral de Bizkaia diciendo que ese collado es muy inestable. Entonces, me genera dudas que otra vez, dentro de unos meses, gente que normalmente no anda por allí... hay seguridad sobre que vayan allí o en qué se ha basado ustedes concretamente para preguntar, para establecer ese aforo, y si garantizan que las personas, los y las visitantes, puedan estar allí sin ningún tipo de riesgo. Nada más, muchas gracias.

La Sra. **PRESIDENTA / LEHENDAKARI** andreak: Gracias, señora Arriola Alzola. En el turno de réplica, tiene la palabra la representante de la Diputación, señora Antxustegi Ziarda.

La Sra. **ANTXUSTEGI ZIARDA** andreak: Gracias, señora presidenta.

En cuanto a los tickets, ya hemos dicho que se harán controles. Por una parte, controles internos, para ver qué entradas se han vendido, si se han hecho o no efectivas, y luego, aparte, si hay fraudes, eso se analizará.

Por otro lado, la seguridad o no seguridad de las personas. Creo que hemos dicho reiteradamente que ahí está controlado, que hay también un grupo de geología, que hay colocados unos prismas, y que está monitorizado en todo momento, y que ahí hay un control. Por tanto, como la seguridad de los y las visitantes es nuestra prioridad, estamos vigilando eso muy bien. Muchas gracias.

La Sra. **PRESIDENTA / LEHENDAKARI** andreak: Gracias a usted, señora Antxustegi Ziarda. Y el 10º punto del orden del día:

El Sr. **SECRETARIO SEGUNDO / BIGARREN IDAZKARI** jaunak:

10.- Examen, debate y votación, en su caso, del/de los escrito/s sobre:

Iniciativa Originaria: Pregunta oral en pleno ([R.E.11/E/2021/0002037](#))

Autor: Cabornero Alor, Eva María (EB)

Asunto: Medidas a poner en marcha por la DFB para implicarse y apoyar al sector del transporte.

Documento Principal: ([R.E.11/E/2021/0002037](#))

Expediente: ([11/B/25/0002543](#))

10.- Hurrengo idatziari(ei) buruzkoak aztertu, eztabaidatu eta, halan bajagoko, bozkatzea:

Jatorrizko ekimena: Ahozko erantzun-eskea Osokoan ([11/E/2021/0002037SE](#))

Egilea: Cabornero Alor, Eva María (EB)

Gaia: Garraioaren sektorean inplikatzeko eta sektore horri laguntzeko BFAk martxan ipiniko dituan neurriak

Dokumentu Nagusia: ([11/E/2021/0002037SE](#))

Espedientea: ([11/B/25/0002543](#))

La Sra. **PRESIDENTA / LEHENDAKARI** andreak: Señora Cabornero Alor, tiene usted la palabra.

La Sra. **CABORNERO ALOR** andreak: Muchas gracias, señora presidenta. Buenos días a todos y todas.

Hilaren 14an, Azpiegituretarako eta Lurralde Garapenerako diputatuak neurri barriak iragarri ebazan, salgaien garraioa berrantolatze eta, halan, Bizkaiko errepide-sareari emoten ei jakon okerreko erabilerea barriro orekatzeko helburuagaz, besteak beste.

Neurri hori gauzatzeko, 30en bat kontrol-arku ipiniko dira, 80 kilometroan zehar, zenbait eskualde-errepidetan, bideetan dabilzan 4.000 kamioi inguru ahalmen handiko sarera joan daitezkan, Aldundiak kalkulau dauanez. Kontuan hartuta arau barri horren eraginez beste zerga bat ezarriko jakola garraioaren sektoreari, Diputatuak adierazo eban garraioaren

sektoreak bere Sailaren laguntza eta babesa eukiko dituala, lehiakortasuna eta jasangarritasuna hobetzeko.

Horregaitik, galdera hau egin gura deutsagu: ze diru-kopuru aurreikusten dau Aldundiak batuko dauala garraio astunari bidesariak ezarri ostean, eta zelango neurriak ipiniko dabez martxan Aldundiak eta beraren sailak garraioaren sektoreari laguntza eta babesa emoteko, eta ea horrek biztugarriren bat ekarriko dauan, zuzeneko edo zeharkako diskriminazinoa egin barik, kontuan hartuta Europako zuzentarauak eta jurisprudentziak zer dinoan. Muchas gracias.

La Sra. **PRESIDENTA / LEHENDAKARI** andreak: Gracias a usted, señora Cabornero Alor, y en el turno de réplica tiene la palabra el representante de la Diputación, señor Pradales Gil.

El Sr. **PRADALES GIL** jaunak: Muchas gracias, señora presidenta. Buenos días.

Halan da, ekainaren 14an, nik neuk eskatuta egindako agerraldian, esan neban salgaien garraioaren sektorea urtenbidearen parte dala, eta salgaien garraio horrentzat planteau dogun eredu barriak haren beharrei erantzun behar deutsela, eta lagundu behar deutsala lehiakortasuna eta jasangarritasuna hobetzen. Eta iragarri neban alkarrizketa-mahai bat martxan ipiniko genduala garraiolariakaz, Bizkaian daukiezan alkartean eta ordezkarien bidez.

Egun haretan bertan, dei egin neutsen kamara honetan ordezkaritza daukien alderdi politiko guztiei, ahalik eta adostasunik handiena lortzen ahalegindu gaitazan izapidetzen hasi barri ginan Foru Agindua babesteko. Izan be, kamara honek dauka Bizkaiko errepide-mugikortasunaren eredu erabagiteko burujaubetza, eta, horrenbestez, uste dot danon ardurea dala gai hori jorratzea.

Eta, batez be, jakitun izan behar garalako aldatzen dabilen mundu baten, gaur goizean hemen aitatzen izan dogun lez, ezer ez egitea be norberaren gain erantzukizunen bat hartzea dala. Eta geure eretxiz, ekiteko komentua heldu da.

Edozelan be, garraioaren sektoreak erronka esanguratsuak daukaz Bizkaian: gero eta zaharkituago dagoan eta kutsagarriagoa dan kamioi-flotea barritzea – sektoreko kamioien batez besteko adina 17 urtekoa da–, garraioa kontratetako plataforma digitalak, nazinoartean funtzionetan dabenak eta batzuetan lehia guztiz bidegabea egiten dabenak, sektoreko profesionalen belaunaldi-aldaketea, ibilgailuen digitalizazinoa eta modernizazinoa errepide bidezko garraioak gaur daukazan eskakizunei aurre egiteko. Gauza askotaz egin behar dogu berba sektoreagaz, ez dot uste erabiltearen truke ordaintzeaz berba egin behar dogunik bakarrik, baita gai horreetaz be.

Horregaitik esan neban, esan genduan, ate bat zabaldu behar genduala sektoreagaz berba egiteko, hareekaz jesarri behar ginala eta ikusi behar genduala zer neurri hartu daitekezan euren lehiakortasuna hobetzeko, erakundeok daukaguzan eskumenen barruan, legea zorrotz betez, eta, bide batez esanda, Europako Batzordeak ezarritako baldintzak zehatz betez, oso zorrotza da-eta errepide bidezko garraioari, eta harentzat ezarri daitekezan laguntza eta biztugarrirei jagokezan kontuetan.

Momentu honetan, agendak finkatzen gabiliz; espero dot hurrengo asteetan lehenengo batzarrak egingo doguzala.

Eta, egin dozun beste itaun bati jagokonez, hau da, erabiltearen truke batuko dan zenbatekoari jagokonez, neure agerraldian esandako beste gauza bat gogorarazoten deusut: bidesarien zenbatekoak Europaren oneretxia euki behar dauala lehenengo, eta, horrenbestez, Batzordearen ebazpen hori ezagutzen ez dogun bitartean, arduragabekeria handia izango litzatekela nik kopururen bat aitatzea. Muchas gracias.

La Sra. **PRESIDENTA / LEHENDAKARI** andreak: Gracias a usted, señor Pradales Gil. En el turno de réplica, tiene la palabra la señora Cabornero Alor.

La Sra. **CABORNERO ALOR** andreak: Gracias señora presidenta, buenos días de nuevo a todos y todas.

Tira, ondo da, badakit hartu-emonetan jarri zarana, ez bakarrik garraioaren sektoreko patronalagaz, baita Bizkaiko garraioaren sektoreko autonomo gehienak ordezkatzan dituan sindikaturen batez be. Ondo, pausu ona da, hori da bidea. Ha-ta guzti be, interesgarria izango zan lehenengo hartu-emonak, proposamena bialdu baino lehenago, edo araua, arauaren zirriborroa, Europako Batzordeari, harek emongo dau-eta oneretxia; behin han bidesarien zenbatekoak erabagi ezkeru, pentsetan dot aldaketa gitxi egin ahal izango dala zenbateko horreetan, garraioaren sektoreak dinoana entzun arren.

Krisi-garaietan, sarritan, diru-sarrerak handitzeko bideak bilatzen dira, eta normalean langile-klaseak ordaintzen dau. Horixe planteetan dau arau barri honek, Pradales jauna, beste zerga bat langileentzat. Oraingoan, garraioaren sektorean; bata bestearen atzetik jasaten gabilzan krisiakaitik daborduko ahulduta dagoan sektore bat, gogorazoz beharra daukat garraiolariak be beharginak dirala, daborduko azpiegiturak mantentzeagaz eta ingurumen-kostuakaz zerikusia daukien zerga ugari ordaintzen dauan sektore bat, pandemian funtsezkotzat jotzen izan dan sektore bat, eta gogoan euki behar da egunero-egunero erabilten doguzan elikagai eta oinarrizko gai gehienak errepidetik ailegaten dirala.

Zuk zeuk onartu zenduan zeure agerraldian, Pradales jauna: garraioaren sektoreak oso jarduera ekonomiko garrantzitsua gauzatzen dau Bizkaian. Hara, topau daigun kamioiak eskualdeetako errepedeatatik aterateko modua garraioaren sektoreari kalte egin barik, bilatu daigun adostutako eta itundutako neurrien kontsentsua, administrazioak, zamaketariak, ontzi-enpresek, garraiolariak, enpresaburuek, eta autonomoen sektoreak be bai, hori da-ta Bizkaian garraioaren ordezkartza nagusia, gehienak autonomoak dira.

Bat gatoz trafiko hori guztia birbideratu behar dogula, eta Europak agindutako norabidea bete behar dogu, baina argi dago ez gatozela bat, ez gagoz ados trafikoaren eskaria konpontzen ez daben autobideak ordaintzeko hartzen diran neurriakaz, lehenago esaten izan dogun lez, eta probak ikustea besterik ez dago. Bizkaia ez dauka hegazkin bako aireporturik, Bizkaia ibilgailu bako autobideak daukaz, eta Supersurrean ikusten doguzan apurrak “Supersurra ezagutzen dot behin erratu eta sartu behar izan nintzalako” multzokoak dira. Supersurra ez dau balio zuek proiektua defendatzean aitaturako helbururako. 2018ko apirilaren 24an, Pradales jaunak esan eban errepede barriaren eraginez bide-sareko trafikoa arinduko zala. Baina orain ikusten dogu ez dala halan, eta hortik dator trafiko-eskaria konpontzeko zure ideia, beste zerga baten bitartez.

Hara, Elkarrekin Podemos IUn trantsizino ekologiko bidezko eta inklusiboaren alde gagoz, baina ez deiela ordaindu errenta txikiak daukiezanek. Fiskalitate berdearen aldeko apustua egiten dogu langileei kalte egiten ez badeutse, autonomo txikiei, Bizkaian, garraiolariak, horixe dira-ta: autonomo txikiak, beharginak. Gracias, y perdón.

La Sra. **PRESIDENTA / LEHENDAKARI** andreak: Gracias a usted, señora Cabornero Alor. Y en el turno de réplica, tiene la palabra el representante de la Diputación, señor Pradales Gil.

El Sr. **PRADALES GIL** jaunak: Ezin dogu beste alde batera begiratu ibilgailu astunek errepide-sarea modu ezegokian erabilteagaitik arazoak sortzen badira, Cabornero andrea. Horrek ondorio esanguratsuak daukaz kutsadura atmosferiko eta akustikoari jagokonez, istripuei jagokonez, sarea gehiago hondatzeari jagokonez, sarea kontserbatzearen, mantentzearen eta hobetzearen aldetik premina handiagoak eukiteari jagokonez... eta, horrenbestez, Bizkaiko zenbait eskualdetako biztanleen bizi-kalidadeari jagokonez: Arratia, Nerbioi ibarra eta beste.

Edozelan be, barriro dinot, emon deiogun aukera bat alkarrizketeari, hartu ideia hori, uste dot garrantzitsuena dala. Eta hausnartu egizu politikan koherentziak daukan balioaz. Guri eskatzen deuskuzuen koherentzia bardina, ze, pentsetan dot, hau Nafarroan eta Gipuzkoan ona bada, eta zuek alde bazagoze, langile eta behargin autonomo horreek antzeko eretxia eukiko dabela Bizkaian, ezta? Muchas gracias.

La Sra. **PRESIDENTA / LEHENDAKARI** andreak: Muchas gracias a usted, señor Pradales Gil. Y el 11º punto del orden del día:

El Sr. **SECRETARIO SEGUNDO / BIGARREN IDAZKARI** jaunak:

11.- Examen, debate y votación, en su caso, del/de los escrito/s sobre:

Iniciativa Originaria: Pregunta oral en pleno ([R.E.11/E/2021/0002039](#))

Autor: Rahona Garay, Iker (EHB)

Asunto: Actuaciones desarrolladas por la Diputación en el conflicto laboral de Petronor.

Documento Principal: ([R.E.11/E/2021/0002039](#))

Expediente: ([11/B/25/0002544](#))

11.- Hurrengo idatziari(ei) buruzkoak aztertu, eztabaidatu eta, halan bajagoko, bozkatzea:

Jatorrizko ekimena: Ahozko erantzun-eskea Osokoan ([11/E/2021/0002039SE](#))

Egilea: Rahona Garay, Iker (EHB)

Gaia: Petronorreko lan gatazkan Aldundiak garatutako jarduerak

Dokumentu Nagusia: ([11/E/2021/0002039SE](#))

Espedientea: ([11/B/25/0002544](#))

La Sra. **PRESIDENTA / LEHENDAKARI** andreak: señor Rahona Garay, tiene usted la palabra.

El Sr. **RAHONA GARAY** jaunak: Buenos días a todos y todas.

Joan dan ekainaren 12an Petronorreko beharginek grebea hasi eben, Zuzendaritzak aurkeztutako aldi baterako enplegu-erregulazinoko espedienteagaitik protestan. Enpresak ABEEa justifiketan dau, esanez erregaian eskaria gitxitu egin dala, pandemiak eragin dauan mugikortasunaren murrizketea dala-ta. Enpresa-batzordeak, zenbait batzar egin ostean, mobilizazioak iragarri ebazan, ikusita Zuzendaritzak ez ebazala euren eskariak onartu, eta, horretaz gainera, hartu-emonetan jarri zan erakunde publikoakaz, baita Bizkaiko Batzar Nagusiakaz be, arazoaren barri emoteko eta urtenbideak bilatzeko. Hain zuzen be, gai horretan

sakontzeko helburuagaz, Ekonomia Sustatzeko diputatu Basurko andreari honakoa itauntzen deusagu: ze jarduketa edo esku-hartze egiten dabil Bizkaiko Foru Aldundia, Petronorreko lan-gatazka dala-ta? Muchas gracias.

La Sra. **PRESIDENTA / LEHENDAKARI** andreak: Gracias a usted, señor Rahona Garay. En el turno de réplica, tiene la palabra la representante de la Diputación, señora Basurko Urkiri. Espere un poco. Disculpe, señora Basurko Urkiri. Vamos a esperar hasta limpiar la tribuna. Tiene usted la palabra.

La Sra. **BASURKO URKIRI** andreak: Gracias. Buenos días a todos y todas otra vez.

En abril de 2020, cuando el Diputado General de Bizkaia presentó el plan Bizkaia Aurrera!, es decir, el plan de medidas urgentes para la recuperación del territorio tras la crisis del coronavirus, indicó que en aquel momento, concretamente el 15 de abril, en Bizkaia había 64.044 empleos en situación de ERTes específicos de suspensión temporal de empleo. Y recalcó que el objetivo principal de las diputaciones era evitar, impedir, que los ERTes de los sectores más afectados se convirtieran en paro. Y que era prioritario trabajar para que las personas en situación de desempleo volvieran lo antes posible al mercado laboral. Esa ha sido y es la brújula que guía nuestro quehacer. En el caso de todas las empresas de Bizkaia, pequeñas, medianas y grandes, sea cual sea el sector de actividad, y poniendo especial énfasis en los más perjudicados por la crisis de la COVID.

ABEEEEK eragindako personen gaineko datuak askoz positiboagoak dira orain. Izan be, maiatzean 11.000 personatik apur bat gorakoa zan kopurua. Ia mundu guztia bat dator ABEEEEK izan dirala tresnarik eraginkorrenetako bat produktino-sarea eta personen enplegua babesteko jasaten gabilzan krisi honetan, baina bat gatoz, modu berean, neurri hori aldi baterako dala eta izan behar dala, gaur egungo negozio-momentu konplexuetan enpresei laguntzeko, baina ahalik eta lasterren bueltau behar dala normaltasunera.

Petronorren kasuan, Aldundia enpresegaz hartu-emonetan dabil, neurri hori ahalik eta denpora-tarte laburrenean erabiliko dala segurtatzeko. Helburu hori gogoan gabilz lanean, ABEEEEK aurreikusita edo indarrean daukiezan enpresa guztien kasuan. Enpresearen eta beharginen arteko negoziazioak bere bidea dauka, Aldundian hori errespetetan dogu, eta espero dogu akordio bat lortuko dala lehenbailehen, Puertollanoko eta Coruñaiko findegietan lortu dan legez. Muchas gracias.

La Sra. **PRESIDENTA / LEHENDAKARI** andreak: Gracias, señora Basurko Urkiri. En el turno de réplica, tiene la palabra el señor Rahona Garay.

El Sr. **RAHONA GARAY** jaunak: Hasteko, eta betiko moduan, eskerrak emoten deusadaz Basurko andreari, beraren azalpenakaitik. Eta gitxienez aitatu gura neukezan zenbait gai jorratzen hasi baino lehenago, uste dot garrantzitsua dala, gaurkoan, alkartasunezko mezu bat bialtzea Petronorreko ABEEEEK eragindako 354 personei, baina barriro esanda lar erabilten dogula kontzeptu hori, alkartasuna. Persona horreek erakunde publikoetara jo dabe, Bizkaiko Batzar Nagusietara jo dabe, ez bakarrik horren bila, baita euren egoera gaintzeko erantzun eraginkorren bila be.

Horregaitik jarri ziran gugaz hartu-emonetan, eta batzar bat egiteko eskatu euskuen Bizkaiko Batzar Nagusietako alderdi politikoen ordezkarioi, joan dan maiatzaren 25ean. Eta egia da, etxea oinarritik egiten hastearren, Gobernu osotzen daben alderdietako kide

batzuek planteau eutsiela testu bat aurkezteko aukerea, alderdi guztien artean adierazpen instituzional bat adosteko helburuagaz, gitxienez babes-neurri modura eta beste neurri batzuk hartzea ahalbidetzeko hartu-emon modura. Bitxia da, azkenean, talde politiko bi horreek, bai EAJ, bai PSE, izan dirala Batzar Nagusietan adierazpen instituzional horren jaiotza bera be eragotzi dabenak.

Petronorren kasu konkretuaz gagoz berbetan. Tira, egia da kasu zehatz bat dala, baina balio deusku orokortzeko be, eta askoz zabalagoa dan eztabaida baten sakon murgiltzeko: lurralde sendo eta aurreratu bat eregiteko eredua. Eta hori egiteko gakoak dira industria-politikea eta kalidadezko enplegua. Zuk, Basurko andrea, pandemian lanpostua galdu daben personak enplegurantz birbideratzen ahalegintzea aitatu dozu, hain zuzen be, eta orain dala pare bat aste enplegu-plana aurkeztu jakun; horretan, merkatu-nitxoak bilatzeko beharraz berba egiten zan, lan barik dagozanak kalidadezko lanpostuak lortzera bideratzeko. Eta egia da ez egoala erantzunik, ea zeintzuk ziran, zehazki, ailegau beharreko merkatu-nitxo horreek.

Bueno, ba, hemen daukagu bat, ez dogu bilatu beharrik. Industria, zalantza barik, horreetako bat da, sortzen dauan guztiagaitik: balio gehitua, soldata handiagoak, baliabide fiskal gehiago, etab. Petronor da Bizkaian geratzen jakun industria-erreferente bakarretakoa, aurrean daukan produkzino-ereduaren erronka barriagaz. Industria indartzea, zalantza barik, apustu estrategikoa da, bai Bizkaiko bai, orokorrean, euskal ekonomiarentzat eta gizartearentzat, eta erakunde publikoen lidertza politikoa behar dau, koordinauta, jakina, sailen arteko koordinazinoa behar da, eta ikuspegi estrategikoa.

Horregaitik, uste dogu erakundeak gatazka hau konpontzeko inplikau behar dirala, eta adierazo deuskuzunagaitik, Basurko andrea, irudipena daukat, txarto ulertu ez badot, momentu honetan Aldundia ikuslearena egiten dabilela, aktorearena baino gehiago, gatazkaren konponbidea ahalbidetzeko. Horrenbestez, ez dakit orain, erantzuna emoteko eta puntu honen gaineko berbaldien txanda ixteko daukazun denpora laburrean, xehetasun gehiago emon ahal izango deuskuzun galderan aitatu doguzan gaien gainean: zehazki, ze jarduketa egiten dabil Aldundia Petronorreko gatazka bideratzeko? Muchas gracias.

La Sra. **PRESIDENTA / LEHENDAKARI** andreak: Gracias, señor Rahona Garay. Y en el turno de réplica, tiene la palabra la representante de la Diputación, señora Basurko Urkiri.

La Sra. **BASURKO URKIRI** andreak: Gracias de nuevo.

Señor Rahona, estoy completamente de acuerdo con usted cuando dice que trabajar a favor de la industria vizcaína nos corresponde a todos y todas, y que debemos fortalecer la industria. También estoy totalmente de acuerdo cuando dice que debemos trabajar la política, o el programa, las diferentes funciones, de manera coordinada, que debemos trabajar buscando la complementariedad, y no tenga dudas de que el plan de empleo liderado por Teresa Laespada, o los programas de promoción económica o de competitividad, que me corresponde a mí gestionar, están coordinados.

Entonces, en este caso, como he dicho, en el caso de Petronor, pero al igual que en cualquier otra empresa en situación de ERTE, hacemos dos cosas. Por un lado, promover el diálogo, que trabajadores y trabajadoras y la empresa hablen, poniendo sobre la mesa la necesidad de mantener el empleo, y al mismo tiempo la sostenibilidad de la empresa, y a la vez, lo que hacemos es poner al servicio de eso todas las herramientas de que disponemos, subvenciones, programas, intermediación, proyectos... para que esa situación de ERTE, tal y como la misma palabra dice, revierta cuanto antes y se vuelva a una situación estable. Muchas gracias.

La Sra. **PRESIDENTA / LEHENDAKARI** andreak: Muchas gracias, señora Basurko Urkiri. Hemos llegado al final del orden del día, y, por tanto, se da por finalizada esta sesión de Juntas Generales. Que tengan ustedes un buen día.

Batzarra 12:36an amaitu da.

Se levanta la sesión a las 12:36 horas.